



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VI. legegintzaldia

Iruña, 2006ko martxoaren 20a

22. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru Lege proiektuak:

- Foru Lege proiektua, kontsumitzaile eta erabiltzaileen defentsari buruzkoa (2. or.).
- Foru Lege proiektua, Nafarroako segurtasun publikoari buruzkoa (16. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, kontsumitzaile eta erabiltzaileen defentsari buruzkoa.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko martxoaren 13an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Foru Diputazioak, 2006ko otsailaren 13an hartutako erabakiaren bidez, kontsumitzaile eta erabiltzaileen defentsari buruzko Foru Lege proiektua ingorri du Nafarroako Parlamentura.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Kontsumitzaile eta erabiltzaileen defentsari buruzko Foru Lege proiektua prozedura arruntari jarraikiz tramitatzea.

2. Proiektu horretaz irizpena emateko ahalmena Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Lan Batzordearen esku uztea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Proiektua argitaratzen denean, **hamabost egun balioduneko epea hasiko da eta 2006ko apirilaren 7ko eguerdiko hamabietan bukatuko da.** Epe horretan, Erregelamenduko 126. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztu ahalko dizkiote proiektuari.

Iruñean, 2006ko martxoaren 13an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Kontsumitzaile eta erabiltzaileen defentsari buruzko Foru Lege proiektua

ZIOEN AZALPENEA

1

Kontsumitzaileen eskubideen defentsa gure inguruko herrialdeetako legeetan sartzen ari da. Gaurko harreman ekonomikoetan nagusi dira merkataritzako teknika modernoak, merkatu librearen aukerak baliatuz zerbitzuak banatu, saldu eta emateko egitura handiak, ekonomiaren globalizazio gero eta zabalagoa eta informazioaren gizartearen teknologia berrien garapena. Horrelako harremanetan kontsumitzailea da alderdi ahulena eta bestearen mende aurkitzen dena.

Horrela, dagoeneko zuzenbide konparatuaren osagai dira eta jasorik daude konstituzio modernoetan osasuna, segurtasuna eta bidezko interes ekonomiko eta sozialak babesteko eskubidea, kontsumitzaileen informaziorako, hezkuntzarako eta prestakuntzarako eskubidearekin batera, eta kontsumitzaileen erakunde bitartez kontsultak egin eta ordezkaritza eta parte-hartzea izateko eskubidea ere bai.

2

Gure Konstituzioaren 51. artikulua xedatzen duenez, botere publikoek kontsumitzaile eta erabiltzaileen defentsa bermatu behar dute, haien segurtasuna, osasuna eta bidezko interes ekonomikoak prozedura eraginkorren bidez babestuz; kontsumitzaile eta erabiltzaileen informazioa eta hezkuntza sustatu behar dituzte, haien erakundeak bultzatu behar dituzte eta entzun egin behar diete kontsumitzaile eta erabiltzaileak ukitzen ahal dituzten auzietan, legeak ezartzen duen moduan.

Konstituzioaren agindua betez, Gorte Nagusiek uztailaren 19ko 26/1984 Legea onetsi zuten, Kontsumitzaile eta Erabiltzaileak Defendatzeko

Lege Orokorra. Hauek dira lege horren funtsezko helburuak:

a) Kontsumitzaile eta erabiltzaileak defendatzeko prozedura eraginkorrak ezartzea, oinarri sendo eta zuzenen gainean.

b) Arlo honetan elkarte mugimenduaren garapen ahalik onena lortzeko lege esparru egokia izatea.

c) Kontsumitzaile eta erabiltzaileen defentsa eratzen duten printzipio, irizpide, betebeharrak eta eskubideak deklaratzeko. Botere publikoek, beren eskumeneko eremuan, horiek kontuan hartu beharko dituzte aurrerantzean arauak egin edo garatzen dituztenean, Konstituzio Auzitegiak finkatutako doktrinaren esparruan.

Beste alde batetik, Europako Erkidegoaren Sorrerako Zuzenbidean kontsumitzaileen babesaren Europako Agiri Bakunak jaso zuen lehenbiziko aldiz. Haren 100.A.3 artikulua dioenez, kontsumitzaileen babesaren arloan estatu kideen legeriak hurbiltze aldera Batzordeak egiten zituen proposamenak babes maila handian oinarritu behar ziren.

Geroago, bai Maastrichteko Tratatuen 129.A artikuluan bai aurrekoari testu berria eman zion Amsterdamgo Tratatuen 153. artikuluan, Erkidegoari neurriak hartzeko agindu zitzaion kontsumitzaileen babes maila handia lortzeko. Horrez gainera estatu kideek babes neurri zorrotzagoak mantentzen eta hartzen ahal dituzte, betiere Tratatuekin bateragarriak badira eta Batzordeari jakinarazten bazaizkio.

Azkenik, Europako Konstituzioa egiteko Tratuak 98. artikuluan dioenez, Batasunaren politikan kontsumitzaileen babes maila handia bermatuko da. Tratatu horrek 2006ko azaroaren 1ean hartuko du indarra, estatu sinatzaileek berrespen tresnak aurkezten baldin badituzte. Halaber, 6. atalean ("Kontsumitzaileen babesaren") dagoen 235. artikulua adierazten duenez, kontsumitzaileen interesak sustatu eta babes maila handia bermatze aldera, Batasunak laguntza emanen du haien osasuna, segurtasuna eta interes ekonomikoak babestearren eta informaziorako, hezkuntzarako eta beren interesen aldeko erakundeetan elkartzeko duten eskubidea sustatzearen. Horretarako hartzen diren neurriak, ordea, ez dira oztopo izanen estatu kide bakoitzak babes zabalagoko xedapenak mantendu edo onetsi ditzen. Betiere horiek Konstituzioarekin bateragarriak izan behar dute, eta Batzordeari jakinarazi behar zaizkio.

Aurrekoari Europan kontsumitzaileak babesteko egin diren arau guztien multzoa gehitu behar zaio (Erkidegoko Zuzenbide Eratorria). Oinarritzko

alderdietan behintzat gune ekonomiko komuna lortuko bada Europako Zuzenbide Pribatuak behar duen batasuna lortzeko bideetako bat da. Alabaina, harmonizatze prozesu horretan ez da besterik egin kontsumitzaileen babesari buruzko hantxak xedapen zehatzak onetsi baino.

Nafarroako Foru Komunitateak arlo honetan duen eskumenari dagokionez, Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 56.1.d) artikulua Foru Komunitateari eskumen eskusiboa ematen dio kontsumitzaile eta erabiltzaileen defentsaren arloan, ezertan eragotzi gabe prezioei buruzko politika, Estatuko lurraldearen barneko ondasunen joan-etorri librea eta lehiaren defentsari buruzko legeria.

3

Konstituzioaren agindua bete eta Nafarroari emandako eskumenak eraginkortasunez baliatu daitezkeen, kontsumitzaileak defendatzeko tresna juridikoa ezarri behar da Foru Komunitatean, Nafarroako gizartearen eskakizun eta eskariei egokitu. Foru lege bat onetsi behar da horretarako, kontsumitzaile eta erabiltzaileen eskubideak babesteko esparru juridiko egokia ezarriko duena eta haien babes aldera botere publikoek abian jarri behar dituzten ekintzak sistematizatuko dituen.

Hona hemen, bada, Foru lege honen helburu aipagarriak:

a) Egoera txarragoan, menpekotasunean, defentsarik gabe edo babesik gabe dauden kolektiboak lehentasunez babestea, bai eta kontsumitzaileen eskubideak ere, guztiek erabili ohi dituzten produktu edo zerbitzu arruntei dagokienez.

b) Osasun eta segurtasun gaietan prebentzio ekintza sustatzea, merkaturatu kontrolatzeko kanpainak eginez, Foru lege honetan ezarritako kautelazko neurriak hartuz, behar denean, eta enpresaburu zein profesionalen kasu bakoitzean kontsumitzaileen osasuna eta segurtasuna babesteko behar den ardura eskatuz: arrisku onargarri buruz behar bezalako informazioa eman dezatela eta ez dezatela merkaturatu arrisku onartezinak dituen produktu edo zerbitzurik, osasunaren eta segurtasunaren babes maila handiari eusteko.

c) Kontsumitzaileen interes ekonomiko eta sozialen babesari loturik dauden eskubide batzuen bilduma egitea. Gehienak lehendik araututa daude beste arau juridiko batzuen bidez, eta haien artean honakoak azpimarratu behar dira: aurretiaz idatzizko aurrekontua eskatzeko eskubidea orokortzea, ikusgai dauden prezioen bidez kontsumitzaileak eragiketaren prezio osoa jakiterik ez duene-

an; era berean, aurretiaz egindako gordailuaren idatzizko gordekina orokortzea, itundutako eragiketa burutu baino lehen ondasunen gordailua egiten denean; kontsumitzaileari eragiketaren egiaztagiria (faktura edo tiketa) atalez atal behar bezala banakatuta eman beharra, eta, azkenik, bezeroak onartzeko eskubidearen erreserba, jendearentzat irekita dauden establezimenduetan sartzeraikoan kontsumitzaileen arteko bereizkeriarik izan ez dadin, eta halaber kontsumitzaileen arteko edozein bereizkeriaren debekua, eskatutako ondasunak eskuratu edo zerbitzuak jasotzerakoan.

d) Botere publikoek kontsumitzaileen informazioa, hezkuntza eta prestakuntza sustatu eta bultzatzea hainbat modutan, besteak beste kontsumitzaileei argibideak emateko bulegoen bitartez; hezkuntza sisteman eduki egokiak sartzeko ikasleek kontsumoaren arloko prestakuntza jaso dezaten; horretarako material didaktikoa prestatu eta argitaratu dadin sustatzea; kontsumitzaileen eskubideen berri zabaltzea komunikabideetan eta informazio kanpainetan.

e) Kontsumoko kooperatibak kontsumitzaile elkarte gisa onartzea, baldin eta kideei kontsumoaren gaineko informazioa, hezkuntza eta prestakuntza ematea sozietatearen xedeetako bada eta sozietatearen ekitaldi bakoitzeko soberakin garbien %10, gutxienez, helburu hori duen funts soziala eratzeke erabiltzen bada.

f) Kontsumitzaile elkartei eskubide hauek onartzea: kontsultan entzunak izateko eskubidea, kontsumo gaitan ematen diren xedapen orokorrak prestatzeko prozeduran parte hartzeko eskubidea eta beren interesen ordezkartzarako eskubidea. Halaber, kontsumitzaileen elkarteak sustatu eta haien erakundeen eta enpresaburu eta profesionalen erakundeen arteko elkarriketa bultzatzea Nafarroako Kontsumoaren Kontseiluaren bitartez.

g) Botere publikoek bitartekotza eta adiskidetzeta sustatzea eta erakundeek bultzada eta babesa ematea kontsumoko arbitraje sistemari, kontsumitzaileei eragiten dieten auziak auzitegietatik kanpo ebazteko bide edo mekanismoak baitira.

h) Kontsumo Ikuskatzailetzari eskumen zabalak ematea produktu, ondasun eta zerbitzuak ikuskatu eta kontrolatzeko, kontsumitzailearen babesa helburu; horrek ez du eragotziko Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren barnean kontsumo gaitan eragina duten beste ikuskapen organo batzuen eskumena, ez eta toki entitateek arlo honetan dituzten eskumenak ere; hori guztia ikuskapen organo guztien arteko koordinazio eta lankidetzaren markoan.

i) Beste alde batetik, eta kautelazko neurrien inguruko berrikuntza gisa, zilegi izanen da halako neurriak hartzea ez bakarrik zantzu argiak daudenean kontsumitzaileen osasuna edo segurtasuna arriskuan daudela uste izateko, baizik eta baita haien interes bidezkoen kontrako urratze larriak egiten direnean ere.

j) Azkenik, zehapen prozeduraren eremuko berrikuntza gisa, arau-hauste moten zerrenda nahiko luzea egin nahi izan da Konstituzioko tipikotasun printzipioa bete dadin; zehapenen zenbatekoa arau kontrako portaeraren zuzenketaren arabera ponderatzea aurreikusitako da, eta horrenbestez zehapen prozeduran, interes publikoa (araua bete dadin) begiratzeaz gainera, zeharbidez kontsumitzaile salatzailearen interes pribatua babestuko da, mekanismo hori arau-hauslearen zuzenketarako pizgarri izanen baita; halaber zenbait zehapen osagarri edo zehapenen ondorio osagarri ezarri dira, eta horien artean nabarmentzekoak dira honakoak: enpresa aldi baterako ixtea arau-hauste oso larria egiten denean, arau-hausleari bidegabeko publizitatea zuzentzeko agindu ahal izatea, laguntza ofizialak ezabatu, kendu, eten edo ukatu eta Nafarroako administrazio publikoekin kontratuak egiteko gaitasuna kendu ahal izatea.

4

Foru Legeak honako egitura du: lau titulu, xedapen gehigarri bat, xedapen indargabetzaile bat eta bi azken xedapen. I. tituluan Foru Legearen xedea, aplikazio eremu subjektiboa eta aplikazio lurraldea azaltzen dira. II. tituluan kontsumitzaile eta erabiltzaileen eskubideak azaltzen dira. III. tituluan kontsumitzaileen eskubideak babesteko mekanismoak jaso dira, hala nola produktu, ondasun eta zerbitzuen ikuskapena eta kontrola, kautela edo prebentziozko neurriak eta gatazkak auzitegietatik kanpo ebazteko bideak, esate baterako kontsumoko arbitrajea, bitartekotza eta adiskidetzeta. Azkenik, IV. titulua zehatzeko ahalmenaz ari da. Estatuko oinarrizko legerian ezarri eta Konstituzio Auzitegiaren doktrinak zehaztu dituen printzipioen arabera erabili behar da ahalmen hori, erregelamenduz ezarritako prozedurari jarraituz, eta Foru lege honetan ezarritako arau-hauste motak, sailkapen eta mailakapen irizpideak, zehapenak eta preskripzio epeak erabili behar dira. Betiere ordezkotza gisa aplikatuko da Nafarroako Foru Administrazioari buruzko abenduaren 3ko 15/2004 Foru Legearen V. titulua, administrazio horrek erabiltzen baldin badu zehatzeko ahalmena.

I. TITULUA

Xedapen orokorrak

1. artikulua. Xedea.

Foru lege honen xedea da Nafarroako Foru Komunitatean kontsumitzaile eta erabiltzaileen eskubideak defendatzea, Espainiako Konstituzioaren 51. artikuluko 1. eta 2. idatz-zatietan dagoen agindua betetzeko eta Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 56.1.d) artikulua Foru Komunitateari ematen dion eskumena erabiliz.

2. artikulua. Kontsumitzaile eta erabiltzaile kontzeptua.

1. Foru lege honen ondorioetarako, kontsumitzaile eta erabiltzaileak dira ondasun, produktu edo zerbitzuak eskaintzen zaizkien pertsona fisiko edo juridikoak, eta halakoak azken hartzaile gisa erosi, erabili edo jasotzen dituztenak norbanakoen, familien nahiz taldeen erabilera edo kontsumorako, baldin eta eskaintzailea enpresaburu edo profesionala bada, pribatua nahiz publikoa, eta, azken kasu horretan, bere enpresa edo lanbide jarduera zuzenbide pribatuko araubideari loturik egiten badu.

2. Ez dira kontsumitzaile eta erabiltzailetzat hartuko enpresa edo lanbide jardueren barnean ondasun, produktu eta zerbitzuak erosi, erabili edo jasotzen dituztenak.

3. Foru lege honen ondorioetarako, bertan kontsumitzaileak aipatzen direnean kontsumitzaile eta erabiltzaileak direla ulertuko da.

3. artikulua. Babes bereziko kasuak.

1. Inguruabar bereziengatik egoera txarragoan, menpekotasunean, defentsarik gabe edo babesik gabe dauden taldeetako kontsumitzaileak, hala nola adingabeak, zaharrak, ezinduak, etorkinak eta beste batzuk, babes bereziaren eta Nafarroako Foru Komunitateko administrazio publikoen berriazko jarduketan xede izanen dira, Foru lege honetan xedatutakoaren esparruan.

2. Halaber, kontsumitzaileen eskubideei babes berezia emanen zaie guztiek erabili ohi dituzten produktu edo zerbitzu arruntekin zuzeneko lotura dutenean.

4. artikulua. Nafarroako administrazio publikoen eskumenak.

1. Nafarroako Gobernuaren eginkizunak dira Nafarroako Foru Komunitatean kontsumoaren arloko politikaren planifikazio orokorra egitea eta Foru lege hau garatzeko erregelamenduak aldarrikatzea, baita toki entitateekin batera aritzeko progra-

ma eta haiekin koordinatzeko mekanismoak sustatzea ere.

2. Toki entitateei dagokie indarra duen legeriak kontsumitzaileen defentsarako ematen dizkien eskumenak erabiltzea.

3. Nafarroako Gobernuak neurri egokiak hartuko ditu administrazio publikoek eta kontsumoaren arloan eskumenak dituzten erakundeek elkarrekin koordinaturik eta lankidetzan jardun dezaten.

II. TITULUA

Eskubide babestuak

5. artikulua. Kontsumitzaileen oinarrizko eskubideak.

Hauek dira kontsumitzaileen oinarrizko eskubideak:

- a) Osasunaren eta segurtasunaren babesa.
- b) Bidezko interes ekonomiko eta sozialaren babesa.
- c) Argibideak, hezkuntza eta prestakuntza kontsumo gaietan.
- d) Ordezkaritza, kontsultarako hizpidea eta parte-hartzea, legez eraturako kontsumitzaile erakundearen bitartez.
- e) Kalte edo galeren ordaina edo egiazko konponketa.

6. artikulua. Eskubideen ukaezintasuna eta baldintza hobearren printzipioa.

1. Foru lege honetan eta arau osagarrietan onartutako eskubideak erabiltzeari aurretiaz uko egiten bazaie edo eskubide horiek ez aplikatzeko ituna egiten bada, ukoa edo ituna erabat deuseza izanen da.

2. Lege honen edo beraren arau osagarrien aurka iruzur egiteak ez du eragotziko saihestu nahi den araua aplikatzea, legeria zibilaren arabera.

3. Foru lege honetan xedatutakoa eta beste edozein arau zibil, merkataritzako edo administrazio arautan xedatutakoa bat ez datozenean, kontsumitzailearentzat hobea den baldintzaren printzipioari eutsiko zaio.

I. KAPITULUA

Osasuna eta segurtasuna babesteko eskubidea

7. artikulua. Printzipio orokorrak.

1. Kontsumitzaile eta erabiltzaileentzat diren produktu, ondasun eta zerbitzuek ez dute haien

osasan edo segurtasunerako arriskurik izanen, erabilera arruntean ohikoak edo erregelamenduz onargarriak direnak salbu. Horretarako kontuan hartuko dira haien ezaugarriak eta erabilera, beste produktu, ondasun edo zerbitzu batzuekin batera izan ditzaketen eraginak, aurkezteko era, publizitatea eta etiketa, eta haien xede diren kontsumitzaile eta erabiltzaileen ezaugarriak. Betiere pertsonen osasunaren eta segurtasunaren babes maila altuari eutsiko zaio.

2. Dena dela, baldin eta, produktu, ondasun eta zerbitzuen izaeragatik, iraupenagatik eta hartzaileen ezaugarriengatik, arriskuak ez badira abisu egokirik gabe berehala sumatzeko modukoak eta produktu, ondasun eta zerbitzuen erabilera edo kontsumo arruntari lotuak, hori aurretiaz argi jakinarazi beharko zaizkie kontsumitzaileei, baliabide egokiak erabiliz.

8. artikulua. Merkatua zaindu eta kontrolatzeko jarduketak.

1. Botere publikoek, beren eskumeneko eremuan, kontsumitzaileen osasuna eta segurtasuna babesteko arauak behar bezala aplikatu daitezten begiratuko dute. Horretarako, merkatua modu egokian zaindu eta kontrolatuko dute eta jarduketa hauek eginen dituzte, besteak beste:

- a) Kontrolak egin, ondasun, produktu eta zerbitzuen segurtasuna eta kalitatea bermatzeko.
- b) Laginak hartu saiakuntza eta analisiak egiteko.
- c) Produktu, ondasun eta zerbitzu seguruak merkaturatuko direla bermatzeko beharrezkotzat jotzen diren kautelazko neurriak hartu.
- d) Ekoizle, banatzaile eta merkatariei behar diren argibideak eskatu.

2. Kontsumitzaileen osasunaren edo segurtasunaren kontrako arriskuak dituzten produktu, ondasun edo zerbitzuak merkatuan izanez gero, botere publikoek haiek atzemateko neurri egokiak antolatuko dituzte eta kautela edo prebentziozko neurri aproposak hartuko dituzte Foru lege honen 32., 33. eta 34. artikuluetan ezarritakoari jarraituz. Horrek ez du eragotziko kontsumitzaileak jakinararen gainean jartzea.

9. artikulua. Zenbait ondasun eta zerbitzuri buruzko jarduketa bereziak.

1. Erabilera edo kontsumo arrunt, ohiko eta orokorreko produktu eta zerbitzuetan erregelamenduz jotzen direnei babes eta kontrol berezia ezarriko zaie.

2. Nafarroako Gobernuak, bere eskumeneko eremuan, aurreko paragrafoan aipatutako ondasun, produktu eta zerbitzuei buruzko ikuskapen, analisi eta informazio kanpainak aldi behin egin daitezten sustatuko du.

10. artikulua. Profesionalen ardura.

1. Produktuak prestatu, ekoitzi, banatu eta saltzen dituzten edo zerbitzuak egiten dituzten profesionalak behar bezalako arduraz jardun beharko dute kontsumitzaileen osasuna eta segurtasuna babesteko.

2. Horretarako, nor bere jardueren esparruan produktu, ondasun eta zerbitzuen arriskuak jakinarazi beharko ditu, eta arriskuak saihestea xede duten jarduketetan lagundu.

3. Bereziki, produktuak merkaturatzeari uko egin behar zaio kontsumitzaileen osasunaren edo segurtasunaren kontrako arriskuak dituztela jakinez gero edo jakin beharra izanez gero, non ez diren ohiko arriskuak edo erregelamenduz onargarriak, Foru lege honen 7.1 artikuluan ezarritakoarekin bat.

II. KAPITULUA

Interes ekonomiko eta sozial babestuek

11. artikulua. Botere publikoen babes ekintza.

Botere publikoek, beren eskumeneko eremuan, kontsumitzaile eta erabiltzaileen interes ekonomiko eta sozial bidezkoak babestuko dituzte, Foru lege honetan, kontsumitzaileen defentsari buruzko legeria orokorrean eta gainerako arau aplikagarrietan ezarritako eran, eta horretarako neurri egokiak hartuko dituzte ondokoak bermatze aldera:

- a) Ondasunen pisuaren eta neurrien zehaztasuna eta zerbitzuen prestazio egokia.
- b) Kontsumitzaileei eskaintzen zaizkien ondasun eta zerbitzuek kalitate arauak betetzea.
- c) Eskaintzen diren ondasun eta zerbitzuen prezio zehatz eta osoak, haien gaineko zerga edo zamak barne, jendaurrean ikusgai jartzea, erraz ikusteko eta nahastu gabe identifikatzeko moduan.
- d) Erreklamazio, berme, uko edo itzulketei buruz kontsumitzaileei eskaini edo agintzen zaien araubidea edo haiekin hitzartzen dena indarra duen legeriarekin bat etortzea erabat.
- e) Ondasun iraunkorrak kontratatzen direnean, legez ezarritako gutxieneko epea iragan arte kontsumitzaileek zerbitzu tekniko egokia eta ordezko piezak eskatzeko duten eskubidea eraginkortasunez eta nahierara erabili ahal izatea.

f) Kontsumitzaileari merkataritzako transakzioaren egiaztagiria, faktura edo ordezkotua (tike-ta) ematea, behar bezala banakatua, hala behar denean, eta agiri horren gutxieneko edukia indarra duen araudian xedatutakoa izatea.

g) Kontsumitzaileak eskatuz gero, idatzizko aurrekontua ematea eragiketa hasi aurretik, artikuluko honetako c) idatz-zatian xedatutakoari jarraituz ikusgai jartzen diren prezioen bidez kontsumitzaileak eragiketaren prezio osoa jakiterik ez duenean. Aurrekontuan beraren indarraldia jarri beharko da nahitaez.

Kontsumitzaileak ez badu aurrekontua onartzen, aurrekontua egiteko zenbatekoa ordaindu beharko du. Aurrekontua egiteko tarifak ikusgai jarri behar dira.

h) Gordekina ematea, hitzartutako eragiketa burutu dadin kontsumitzaileak ondasunen gordailua egin behar duenean. Gordekinean ondokoak agertuko dira gutxienez: gordailua egin duen erabiltzailearen eta establezimendu gordailuzainaren identifikazioa, xedea, egin beharreko eragiketa, gordailuaren data eta aurreikusitako entrega-data.

i) Ondasun eta zerbitzuen sorrera, banaketa, informazioa, publizitatea, sustapena, eskaintza eta salmenta direla-eta indarra duten xedapenak eraginkortasunez aplikatzea eta zorrotz betetzea.

j) Erreklamazio orriak edukitzea eta eskatzen dituzten kontsumitzaileei ematea, erregelamendu bidez ezarritakoarekin bat.

12. artikulua. Kontratuen edukia eta kontratatzeke baldintza orokorrak.

1. Foru Komunitateko botere publikoek, beren eskumeneko esparruan, kontratuen edukia indarra duen legeriarekin bat etor dadin begiratu dute eta horretarako neurri egokiak hartuko dituzte. Zehazki, kontsumitzaile eta enpresaburuen elkar-teekin eta Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganbera Ofizialarekin lankidetzan, bideak jarriko dituzte trafikiko juridikoan testu argi, zehatz, garden eta ulerterraza duten kontratazio baldintza orokor-rrak erabil daitezten.

2. Halaber, onusteari eta prestazioen oreka bidezkoari aurka egiten dien edozein klausula kentzeko eskatuko dute, indarra duen legeriarekin bat.

3. Babes hori, lehenetsunez, erabilera arrunta, ohikoa eta orokorra duten produktu, ondasun eta zerbitzuei dagozkien kontratuen gainekoa izanen da.

13. artikulua. Publizitate jarduera.

Nafarroako Gobernuak behar diren neurriak hartuko ditu publizitate jarduerak nahikotasun, objektibotasun, egiazkotasun eta zinezkotasun printzipioak bete ditzen, eta kontsumitzaileen interes bidezko kalte egiten dieten publizitate-agerpen iruzurrezkoak edo bidegabekoak jazarriko ditu betiere.

14. artikulua. Onartzeko eskubidearen erre-serba eta bereizkeriarik ezaren printzipioa.

1. Jendearentzat irekiak izan eta bezeroak onartzeko eskubidea erreserbatua duten establezimenduetan, ongi ikusten den kartela jarri beharko da sarreran, eskubide hori erabiltzeko ezarritako baldintzak aditzera emateko. Baldintza horiek ezin izanen dira zehaztugabeak, bereizkeriazkoak, arbitrarioak edo establezimenduaren izaera eta jarduerarako desegokiak izan.

2. Eskatzen diren ondasunak saldu edo zerbitzuak egiterakoan ezin izanen da kontsumitzaileen arteko bereizkeriarik egin.

III. KAPITULUA

Kontsumoaren arloko informaziorako, hezkuntzarako eta prestakuntzarako eskubidea

15. artikulua. Informaziorako eskubidea.

1. Kontsumitzaile eta erabiltzaileek eskubidea dute informazio egiazkoa, eraginkorra eta nahikoa jasotzeko kontratazio baldintzei buruz eta eskaintzen zaizkien ondasun edo zerbitzuen funtsezko edo garrantzizko ezaugarriei buruz, horiek zentzuz aukeratzeko eta seguru eta nahi duten moduan erabili ahal izateko.

2. Aurreko idatz-zatian ezarritakoari jarraituz kontratuaren baldintza juridiko eta ekonomikoei buruz ematen den informazioa behar adinakoa ez denean, hura onustearen printzipioaren arabera integratu dute.

3. Ondasun edo zerbitzuak prestatu, ekoitzi, merkaturatu, banatu eta saltzearen ardura duten subjektuei egotzi ahal izanen zaie informazioa emateko betebeharra.

16. artikulua. Kontsumitzaileei argibideak emateko bulegoak.

1. Nafarroako Gobernuak kontsumitzaileei argibideak emateko bulegoen sorrera bultzatu eta sustatuko du, titulartasun publikokoak izan nahiz kontsumitzaile elkarten menpekoak.

2. Kontsumitzaileei argibideak emateko bulegoek ezin izanen dute produktu edo zerbitzuen inolako publizitaterik egin.

3. Nafarroako Gobernuak, kontsumo gaietan eskumena duen departamentuaren bidez, kontsumitzaileei informazioa emateko bulegoen lana koordinatuko du eta haien ezarpenerako eta funtzionamendurako laguntza tekniko eta ekonomikoa emanen du, erregelamenduz zehazten den moduan.

17. artikulua. Kontsumitzaileei argibideak emateko bulegoen eginkizunak.

Hona hemen kontsumitzaileei argibideak emateko bulegoen oinarrizko eginkizunak:

a) Kontsumitzaileei beren eskubideak modu egokian erabiltzeko argibideak, laguntza eta orientazioa eskaintzea.

b) Kontsumitzaileen salaketa eta erreklamazioak jasotzea, erregistratzea eta jaso izana adieraztea, entitate edo erakunde egokiei igortzea, eta haien jarraipena egitea, interesatuei behar den informazioa emateko.

c) Alderdi interesatuek eskatuz gero, irizpena edo arbitrajea eskatzea organo eskudunari, eta eskubidearekin batera auziari buruzko informazio osoa eta zehatza ematea.

d) Gatazketan borondatezko bitartekotzarako bidea izatea.

e) Kontsumitzaileek agintari edo erakundeen eskumeneko zerbitzuei buruz egiten dituzten eskaerak kasuan kasuko agintari edo erakundeari helaraztea.

f) Kontsumoaren arloko elkartegintza, arbitraje sistemaren erabilera eta bitartekotza sustatzea gatazkek ebazteko bide gisa.

g) Kontsumitzaileen eskubide eta betebeharrei buruzko informazio kanpainak egitea, eta haien prestakuntza hobetzeko programak garatzea.

18. artikulua. Hezkuntzarako eta informaziorako eskubidea.

1. Kontsumitzaileek kontsumoaren arloko hezkuntzarako eta prestakuntzarako eskubidea dute, beren eskubide eta betebeharrak eta horiek behar bezala erabili ahal izateko bideak ezagut ditzaten.

2. Halaber, kontsumitzaileen hezkuntzak eta prestakuntzak helburu hauek izanen dituzte:

a) Ondasunak kontsumitu eta zerbitzuak erabiltzerakoan zentzuz jokatzea.

b) Produktuen kontsumoak eta zerbitzuen erabilerak ekar ditzaketen arriskuei aurrea hartzea.

c) Kontsumoa baliabide naturalen zentzuzko erabilerari egokitzea.

d) Kontsumitzaile eta erabiltzaileen elkarteak sustatzea, haien eskubideak defendatzeko bitarteko eraginkorrak baitira.

3. Aurreko zenbakietan aipatutako helburua eta xedeak lortze aldera, botere publikoek honako jarduketak egingen dituzte:

a) Ikasleei kontsumo gaiei buruzko prestakuntza emateko eduki egokiak sartzeko hezkuntza sisteman.

b) Kontsumitzaile eta erabiltzaileen hezkuntza eta prestakuntzarako material didaktiko lagungarriak prestatu eta argitaratu daitezkeen sustatzea.

c) Informazio kanpainen bidez argibide eta orientabideak ematea. Horretan lankide izaten ahalko dituzte kontsumitzaile eta erabiltzaileen elkarteak.

19. artikulua. Kontsumoaren arloko lanbide prestakuntza.

Botere publikoek kontsumoaren arloan informazio, hezkuntza, prestakuntza, kalitate-kontrol eta ikuskapen lanak egiten dituzten langileen etengabeko prestakuntza sustatuko dute.

IV. KAPITULUA

Ordezkaritzarako, kontsultarako eta parte hartzeko eskubidea

20. artikulua. Eskubide horien erabilera.

1. Legez eraturako kontsumitzaile erakunde eta elkarteak bitarteko egokiak dira kontsumitzaileen interesak defendatzeko eta kontsumitzaileek haien bidez erabiliko dituzte kontsultarako hizpidea izateko eskubidea, kontsumoaren arloan ematen diren xedapen orokorrak prestatzeko prozeduran parte hartzeko eskubidea eta beren interesen ordezkaritzarako eskubidea.

2. Botere publikoek kontsumitzaileen elkarteak sustatuko dituzte eta haien erakundeen eta enpresaburu eta profesionalen erakundeen arteko elkarrikeria sustatuko dute Nafarroako Kontsumoaren Kontseiluaren bidez.

21. artikulua. Kontsumitzaileen elkarteak.

1. Legez eraturako kontsumitzaile elkarteek kontsumitzaileen interesak defendatzea izanen dute helburu. Haien onura publikoa deklaratu ahal izanen da eta onesten diren laguntza publikoak eman ahal izanen zaizkie beren xedeak betetzeko. Halaber, kontsumoko arbitraje sisteman parte hartu ahal izanen dute.

2. Kontsumitzaileen elkarteek kontsumoaren arloan ematen diren xedapen orokorrak prestatzeko prozeduran parte hartu ahal izanen dute Nafarroako Kontsumoaren Kontseiluaren bidez, Foru lege honen 25.2 artikuluan adierazitako eran.

3. Foru lege honen ondorioetarako, kontsumoko kooperatibak ere kontsumitzaile eta erabiltzaileen elkartetzat hartuko dira, berariaz arautzen dituen legeriaren arabera eratzten badira eta honako baldintzak betetzen badituzte:

a) Bazkideei kontsumoari buruzko informazioa, hezkuntza eta prestakuntza emateko helburua estatutuetan jasotzea, sozietatearen xedearen atal gisa.

b) Sozietatearen funts bat eratzea a) letran aipatutako helbururako soilik, eta ekitaldi bakoitzeko soberakin garbien %10 funts horretara bideratzea.

4. Oro har, eta behar bezalako askatasunez, kontsumitzaileen elkarteek Administrazioarekin lankidetzan jardunen dute guztien interesak eta berariaz kontsumitzaileen interes bidezkoak zaintzea xede duten jarduketetan.

22. artikulua. Kontsumitzaileen elkarten funtzionamendua.

Kontsumitzaileen elkarteek antolaketa eta funtzionamendu demokratikoak izanen dituzte. Eskatzen ahal zaizkien onustearen eta arduraren printzipioei jarraituz eginen dituzte beren jarduerak, eta bereziki, uko eginen diote kreditazioen, analisen emaitzen edo behar adina egiaztaturiko kalitate-kontrolen bidez bermatuta ez dauden informazioak zabaltzeari. Nolanahi ere, egokitzat jotzen dituzten salaketak aurkezteko eskubidea izanen dute.

23. artikulua. Kontsumitzaileen elkarten erregistroa.

Foru lege honetan onartutako eskubideak erabili ahal izateko, kontsumitzaileen elkarteek erregelamenduz sortuko den erregistroan inskribaturik egon beharko dute.

24. artikulua. Kontsumitzaileen elkarteei legezko onurak kentzeko arrazoiak.

1. Kontsumitzaileen elkarteei Foru lege honetan onartutako onurak kenduko zaizkie inguruabar hauetakoren bat gertatuz gero:

a) Irabazteko xedea duten pertsona juridikoak bazkide gisa onartzea.

b) Kontsumitzaile edo erabiltzaileentzako produktu edo zerbitzuak merkaturatzen dituzten enpresen laguntzak edo dirulaguntzak jasotzea.

c) Produktu edo zerbitzuen publizitate komertziala edo informazio hutsa ez den publizitatea egitea.

d) Kontsumitzaileen defentsa ez beste jarduera batzuetan lehentasunez aritzea, kontsumoko kooperatibak izan ezik.

e) Epaileak kontsumitzaile elkarteak ausarkeria nabarmenez aritu dela iriztea.

f) 22. artikuluan ezarritako betebeharrak ez betetzea.

2. Aurreko idatz-zatian aipatutako kasuetan, Foru lege honetan onartutako onurak kenduko dira kontsumitzaile elkarten erregistroko inskripzioaren urtebete eta bost urte bitarteko etenaldiaren bidez edo behin betiko bajaren bidez. Aldez aurretik administrazio espedientea izapidatuko da eta ukitutako elkarteari entzunen zaio.

25. artikulua. Nafarroako Kontsumoaren Kontseilua.

1. Nafarroako Kontsumoaren Kontseilua kontsumo gaietarako ordezkari-tza, kontsulta eta parte-hartze organo gisa eratuko da. Kontsumitzaileen erakundeek, enpresaburuen elkarteek, Merkataritza eta Industria Ganbera Ofizialak eta Nafarroako administrazio publikoek ordezkariak izanen dituzte kontseilu horretan.

2. Nafarroako Kontsumoaren Kontseiluak aginduzko txostenak eginen ditu kontsumoaren arloan ematen diren arauetarako buruz.

3. Nafarroako Gobernuak, foru dekretu baten bidez, Nafarroako Kontsumoaren Kontseilua sortuko du eta haren egitura, osaera eta eginkizunak zehaztuko ditu.

V. KAPITULUA

Kalte eta galeren ordainerako edo konponketarako eskubidea

26. artikulua. Eskubidearen edukia.

Ondasun edo zerbitzuak erosi edo erabiltzearen ondorioz kalte-galerarik izanez gero, kontsumitzaileek konponketarako edo kalte-ordainerako eskubidea izanen dute, indarra duen legeriaren arabera.

III. TITULUA**Kontsumitzaileen eskubideak
babesteko mekanismoak****I. KAPITULUA****Produktu, ondasun eta zerbitzuen
ikuskapena eta kontrola****1. atala****Kontsumoan eragina duen ikuskapena**

27. artikulua. Kontsumoan eragina duten ikuskapenak.

1. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak eta toki entitateek, bakoitzak bere eskumeneko eremuan, behar diren ikuskapenak eginen dituzte. Horrela, ondasun edo zerbitzuak ekoitzi, banatu edo merkaturatzen dutenak eta horiekin elkarlanean ari direnak zainduko dituzte eta beren jarduerarekiko antolamenduan ezarritako betebeharrak, debeku eta muga batzuk, Foru lege honek babesten dituen interes orokorreari dagozkienak hain zuzen, betetzen dituztela bermatuko dute, interes orokor horiei kalterik egin ez diezaieten.

2. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio-oko organoak eta toki entitateak elkarrekin koordinatuko dira ikuskapen eta kontrol eginkizunak betetzeko.

3. Kontsumitzaileei eskaintzen ari zaizkien edo eskainiko zaizkien ondasun eta zerbitzu guztiak ikuskatu ahal izanen dira, bai eta ekoizpenean, banaketan eta merkaturatzean erabilitako lehen-gaiak, establezimenduak eta mota guztietako makinak ere. Lehentasunez ikuskatuko dira erabilerara edo kontsumo arrunt, ohiko eta orokorrekotzat jotzen diren ondasun, produktu eta zerbitzuak.

28. artikulua. Ikuskatuen betebeharrak.

Establezimenduen titular diren pertsona fisiko edo juridikoek, haien ordezkariak edo ikuskapena egiten denean establezimenduen ardura duten pertsonak betebeharrak hauek izanen dituzte:

a) Ikuskapenak onartu eta erraztea.

b) Instalazio, produktu eta zerbitzuei buruz eskatzen dizkieten argibide guztiak ematea, jarduerarako behar diren baimen eta lizentziak erakustea, eta ikuskatzaileei datuak bertan egiaztatzen uztea.

c) Egindako transakzioak eta aplikatutako prezio eta marjinak egiaztatzeko agiriak eta erantzukizunak zehazteko beharrekotzat jotzen den beste edozein agiri erakustea, euskarria edozein dela ere, eta haien kopiak ematea.

d) Produktu eta ondasunen laginak har daitezzen eta haiekin bestelako kontrol edo saioak egin daitezzen onartzea, ekoizpen, ontziratze edo merkaturatze prozesuaren edozein fasetan.

e) Agindutako kautelazko neurriak betetzen laguntzea.

f) Oro har, ikuskatzaileen lanak eta eginkizunak onartu eta erraztea.

2. atala**Kontsumoko Ikuskatzailetza**

29. artikulua. Kontsumoko Ikuskatzailetza.

1. Aurreko atalean azaldutako ikuskapen lanak Nafarroako Gobernuak Kontsumoko Ikuskatzailetzak egin ahal izanen ditu, baina ezertan eragotzi gabe beste administrazio publiko batzuek edo Nafarroako Gobernuak beste organo eta zerbitzu batzuek zenbait sektore edo arlotan egin behar dituzten ikuskapenak.

2. Kontsumoko Ikuskatzailetzak batez ere merkaturatze faseetan jardunen du, kontsumitzaileak babesteko berariaz ezarritako betebeharrak, debekuak eta mugak betetzen direla egiaztatzeko.

3. Ikuskapen mota hauek egin ahal izanen dira:

a) Merkatua kontrolatzeko ikuskapenak, indarra duen legerian ekoizle, ontziratzaile, inportatzaile, banatzaile eta hornitzaileei ezarritako baldintza eta betebeharrak betetzen direla egiaztatzeko.

b) Merkatua ikertzeko ikuskapenak; hauen bidez informazioa biltzen da merkatu azterlanak egiteko eta kontsumitzaileei arriskuak sortzen ahal dizkieten sektore, artikulua eta jarduerak atzemateko.

c) Merkatuko eragileei aholku eta informazioa emateko ikuskapenak; hauen bidez arauak ezagutu eta betetzeko bidea ematen da eta kontsumitzaileen mesederako izanen diren merkataritza eta fabrikazio praktika onak zabalitzen dira.

30. artikulua. Kontsumoko ikuskatzaileak.

1. Kontsumoko ikuskatzaileek hala identifikatuko dute beren burua ikuskapen lanetan ari direnean eta agintari gisa hartuko dira ondorio guztietarako, bereziki erantzukizun administratibo eta penalari dagokionez, zerbitzua egin bitartean edo horren ondorioz norbaitek aurka egiten badie, haien aginduak betetzen ez baditu edo arlo penalean zigortzen ahal den beste edozer egiten badu haien aurka, hitzez nahiz egitatez.

2. Ikuskapen lanak egiteko, ikuskatzaileek edo kontsumo arloan eskumena duten agintariak beste edozein agintaritzaren laguntza, esku-hartzea,

sorospena eta babesari eskatu ahal izanen dituzte, eta hark laguntza eman beharko die. Bereziki, Nafarroako Gobernuak eta gainerako administrazio publikoetako beste ikuskerazaitza tekniko batzuekin lankidetzan jardun ahal izanen dute eta haien laguntza jaso ahal izanen dute beren esku-
men eta eginkizunen eremuan.

3. Indarra duen legeriaren arabera, kontsumo-ko ikuskerazaitzeek beren eginkizunetan ari direnean zilegi izanen dute:

a) Ondasunak ekoitzi, prestatu, biltegitatu, banatu edo saltzen diren edo zerbitzuak egiten diren establezimendu, bulego eta instalazioetara noiznahi eta aurrez abisatu gabe sartzea.

b) Ikuskeratzen dituzten enpresetan, beharrezko-
tzat jotzen duten aldi guztietan, industria, merkataritza eta kontabilitate gaietako informazioa eta agiriak eskuratzea, edozein dela ere horien euskarria, kontsumitzaileen babesari buruzko xedapenak betetzen ote diren begiratzeko, eta halaber, informazio eta agiri horiek eskatzea.

c) Enpresaburu edo profesionaleri bulego publikoetara agertzeko eskatzea, etxe partikularrean lan egiten badute, merkataritzako lokalik ez badute edo Kontsumoko Ikuskerazaitzearekin zerikusirik ez duten arazoengatik ikuskerapena lokalean egite-
rik ez badago.

d) Ondasun edo produktuen laginak hartzea. Administrazioak kalte-ordaina emanen du lagin gisa hartutako edo kontrolen ondorioz galdutako produktuengatik. Kalte-ordainaren zenbatekoa produktuen salmenta balioaren arabera izanen da.

e) Foru lege honen 32, 33 eta 34. artikuluetan adierazitako moduan kautelazko neurriak hartzea, agintari eskudunak hala aginduta edo beren ekimenez; azken kasu horretan organo eskudunak kautelazko neurriak berretsi edo kenduko ditu.

f) Kontsumitzaileak babesteko arauak betetzen ote diren jakiteko beharrezkoa iruditzen zaien beste edozein ikerketa edo azterketa egitea.

4. Administrazio publikoen menpeko zerbitzu edo enpresetan, ikuskerapenak haien organo eta agintariekiko lotura funtzionalik gabe egiten dira, eta ikuskerazaitzeek eskatzen dituzten informazio guztiak eman beharko zaizkie.

5. Beren eginkizunetan ari direnean, kontsumo-ko ikuskerazaitzeek diskrezioz, zuhertasunez eta gizabidez jokatu dute. Administrazioei begirunea izanen diete, neurritz eta zuhur jokatu dute eta ikuskeratuen lanbide jardura behar-beharrezkoa den heinean baino ez dute eragotziko. Ematen

zaizkien informazioak betiere erabat isilpean edukiko dituzte.

31. artikulua. Ikuskerapen aktak.

1. Kontsumoko ikuskerazaitzeek beren jarduketa bakoitzaren akta egiten dute. Bertan ondokoak jasoko dituzte:

a) Ikuskeratutako establezimenduaren titularra den pertsona fisiko edo juridikoaren identifikazioa.

b) Ikuskerazaitzearen edo ikuskerazaitzearen identifikazioa, eta ikuskerapenean haiekin egon den pertsonarena. Pertsona hori zer dela eta agertu den, eta ikuskerazaitzeek eskatutako agiriak aurkeztu dituela bere izaera frogatzeko.

c) Jarduketaren arazoak.

d) Ikusi diren gertaerak, inguruabar jakingarriak eta ikuskerapenari adi egon direnek egin nahi izan dituzten oharak.

e) Ikuskerapenaren tokia, eguna eta ordua.

f) Ikuskerazaitzearen eta haiekin egon den pertsonaren sinadurak. Pertsona horri sinatu aurretik jakinarazi behar zaio aktaren edukari buruz adierazpenak egiten ahal dituela aktan jaso daitezkeen.

Pertsona horrek sinatzen ez badu ere, akta baliozkoa izanen da. Sinatzeari uko egiten badiu, nahitaez sinatu behar duela jakinaraziko zaio, eta ohartaraziko zaio bisita egin dela jasorik uzteko helburu soilarekin sinatzen ahal duela, a), b) eta e) idatz-zatietako datuak ontzat emateko bakar-bakarrik. Hori guztia aktan jasoko da.

2. Behar denean, honako hauek ere aktan jasoko dira:

a) Instalazio, produktu edo zerbitzuetan egindako laginketa, neurketa, egiaztapen edo bestelako kontrolen deskripzioa.

b) Agintaritzak agindu eta interesatuari eragiten dioten administrazio neurrien jakinarazpen pertsonala eta horiek ez betetzeak ekartzen ahal dituen ondorioei buruzko informazioa.

c) Erantsitako agirien zerrenda. Agiri horietan aktaren identifikazioa jarri behar da.

3. Ikuskerapenean egon den pertsonaren aurrean formalizatuko da akta, eta sinatu ondoren kopia bat emanen zaio.

4. Ikuskerazaitzeek legezko baldintzak betez aktan jasotzen dituzten gertaerak frogatzea izanen dute, indarra duen legerian xedatutakoaren arabera, deusetan ukatu gabe interesatuek beren eskubide edo interesen alde aurkezten ahal dituzten frogak.

II. KAPITULUA**Kautela edo prebentziozko neurriak****32. artikulua.** Kautelazko neurriak.

Agintaritza eskudunak berehala edo lehenbait lehen hartuko ditu kautela edo prebentziozko neurri egokiak, kontsumitzaileen osasuna edo segurtasuna arriskuan dagoela argi ikusten denean edo haien interes ekonomiko eta sozial bidezkoen aurkako urratze larriak egiten direnean.

33. artikulua. Kautelazko neurrien motak.

Kautelazko neurri hauek hartu ahalko dira:

- a) Produktuak lekuz aldatzeko debekua.
- b) Produktuak merkatutik ateratzea.
- c) Establezimendu edo zerbitzuaren atalen baten funtzionamendua etetea.
- d) Establezimendua itxi edo jarduera geldiaraztea.
- e) Kasuaren inguruabarren arabera beharrezkoa den beste edozein neurri.

34. artikulua. Neurrien proportzionaltasuna eta interesatuari entzutea.

1. Kautelazko neurriak atzemandako irregulartasunaren neurrikoak izanen dira eta ahalik gutxien iraunen dute, behar diren kontrol eta egiaztapenak zentro kualifikatuetan egin arte edo interesatuek arazoa konpondu eta arriskua erabat ezabatu arte soilik. Neurria hartzeko agindu zuen agintaritzak arazoa konponduta dagoela egiaztatu beharko du.

2. Kautelazko neurriak hartzeaz gain, zehapen espedientearen abian jarri ahal izanen da, kontsumitzaileen babesaren arloko arau-hausterik badago. Kautelazko neurriak jakinaraztearekin batera interesatuari entzuteko epea ezarriko da, gehienez bost egun baliodun, eta agintaritza eskudunak hamar egun balioduneko epea izanen du ebazpena emateko.

35. artikulua. Informazioa trukatzeko sistema.

Nafarroako Foru Komunitateko mugez gaindiko arriskua egonez gero, agintaritza eskudunak jakinaren gainean jarriko ditu Estatuko Administrazio Orokorra eta arriskupean egon daitezkeen lurraldeetako administrazioak, horretarako ezarritako bide eta prozedurak erabiliz.

III. KAPITULUA**Gatazkak auzitegitik kanpo ebazteko bideak****36. artikulua.** Bitartekotza eta adiskidetzea.

Nafarroako Foru Komunitateko botere publikoek bitartekotza eta adiskidetzea sustatuko dituzte,

kontsumoaren arloko gatazka eta erreklamazioak auzitara jo gabe ebazteko bideak baitira.

37. artikulua. Kontsumo arloko arbitrajea.

1. Nafarroako Foru Komunitateko administrazio publikoek, indarra duen legeriaren esparruan, Kontsumoko Arbitraje Sistemaren garapena sustatuko dute, kontsumitzaileei eragiten dieten gatazkak auzitegitatik kanpo ebazteko bidea den aldetik, eta enpresak, profesionalak eta haien erakundeak sistema horri atxikitzen bultzatuko dituzte.

2. Administrazio horiek, halaber, bakoitzak bere eremuan, beren menpeko entitate eta enpresa publikoak eta horien zerbitzu publikoak kudeatu edo baliabideak jasotzen dituzten entitate edo enpresa pribatuak Kontsumoko Arbitraje Sistemari atxikitzen bultzatuko dituzte.

IV. TITULUA**Zehatzeko ahalmena**

38. artikulua. Zehatzeko ahalmena eta zehapen prozedura.

1. Nafarroako Foru Komunitateko administrazio publikoari dagokie kontsumoaren arloko zehapenak ezartzeko ahalmena, legez eta erregelamenduz xedatutakoaren arabera.

2. Foru lege honetan eta hura garatzeko arautan aurreikusi gabeko orotan, xedapen hauek hartuko dira aintzat zehatzeko ahalmena erabiltzeko: Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen IX. tituluaren xedatutakoa, eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari dagokionez, aurrekoaz gainera, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari buruzko abenduaren 3ko 15/2004 Foru Legearen V. tituluaren xedatutakoa.

39. artikulua. Arau-hausteen tipifikazioa.

Foru lege honen ondorioetarako, honako hauek kontsumitzaileen defentsaren arloko arau-hauste administratiboak dira:

a) Prezioei buruzko arauak ez betetzea, eskatu ez diren baldintza edo prestazio osagarriak edo gutxieneko kopuruak bidezko arrazoirik gabe ezartzea, eta, oro har, prezioen edo marjina komertzialen neurritz gaineko gehikuntza eragiten duen beste edozein jarduketa.

b) Kontsumitzaileak onustez edo finkatutako ohiturari jarraituz egiten dituen eskariei ezezkoa ematea bidezko arrazoirik izan gabe, eskatutakoa betetzea ohiko saltzaile edo zerbitzugilearen esku

egon arren, eta eskari horien aurrean edozein motatako bereizkeriaz jardutea.

c) Zerbitzu jarraituetarako kontratua duen kontsumitzaileari kontratu hori prozedura itunduaren bidez bertan behera uzteko eskubidearen erabilera oztopatzea, edo zerbitzuan baja emateko prozedurarik ez izatea.

d) Egindako transakzioaren fakturak edo frogagiriak ez ematea edo emateko trabak jartzea, kontsumitzaileak haiek eskatzen dituenean edo lege nahiz erregelamenduzko xedapenek hala aginduta norbaiti eman behar zaizkionean; eta eragiketa hasi aurretik aurrekontua eta/edo aurretiazko gordailuaren gordekina, behar bezala xehekatua eta azaldua, ez ematea edo emateko trabak jartzea, lege edo erregelamenduzko xedapenek horiek emateko agintzen dutenean.

e) Enpresa, instalazio edo zerbitzuaren araubide eta funtzionamendu egokiak eta kontsumitzailearen babesa bermatzeko nahitaez bete behar diren dokumentazio eta informazio arauak ez betetzea. Bereizki, erreklamazio orriei buruzko arauak ez betetzea.

f) Ondasun eta zerbitzuen erregistro, normalizazio edo sailkapenari, etiketei, ontziei eta publizitateari buruzko arauak ez betetzea.

g) Segurtasunari buruzko xedapenak ez betetzea, arau-hausteak kontsumitzaileari eragiten diotenean edo arriskua ekartzen ahal dionean.

h) Produktu edo zerbitzuaren egiazko ezaugarriak edo hura emateko baldintzak ezkututzen dituen edo oker ulertzeko bidea ematen duen edozein jokaera.

i) Ondasun edo zerbitzuen kalitatea, kopurua edo jatorria dela-eta iruzur egitea.

j) Ondasun iraunkorrak bermatu eta konpontzeko betebeharraren kontrako iruzurra egitea, horri buruzko arauak hausten direlako edo kontsumitzaileari eskaintzen zaizkion ordezkio piezak eta laguntza teknikoa ondasunak erosi zituenean agindutakoak ez direlako.

k) Kontsumitzaileentzako produktu, zerbitzu edo jarduerak eskaini, sustatu eta iragartzen direnean iruzur egitea, baldintzak ez betetzea edo gezurra esatea.

l) Arbitraje sistemaren menpe jartzeari uko egitea, enpresaburuak sistema horri atxikita dagoela adierazten duen ikurra erabili duelarik, merkaturatzen dituen ondasun edo zerbitzuen eskaintzan edo sustapenean edozein modutan agerraraziz.

m) Abusuzko klausulak erabiltzea.

n) Kontsumitzaileei aukeratzeko askatasuna mugatzea edo erosteko erabakia baldintzatzea, salmentarako metodo eta teknika gogorrek erabiliz.

o) Ikuskapen edo zaintza lanetan traba egitea, ikuskatzaileei datuak ez ematea eta laginak hartzen eragozte.

p) Administrazio organoei jaramonik ez egitea, zehapena ekar dezaketen gertaerak eta erantzukizunak argitzeko asmoarekin errekerimenduak egiten dituztenean.

q) Agintaritzaren eskudunak ezarritako kautela edo prebentziozko neurriak ez betetzea eta haien esku-hartzearen xede diren salgaiak deuseztatu edo manipulatuzea.

40. artikulua. Arau-hausteen sailkapena.

Arau-hausteak arinak, larriak edo oso larriak izanen dira, irizpide hauen arabera:

a) Kontsumitzaileen osasunaren edo segurtasunaren kontrako kalte edo arriskurik ekarri duten.

b) Kontsumitzaileen interes ekonomikoei kalterik egiten dieten.

c) Produktu edo zerbitzuaren hartzaileen ahultasun gradua.

d) Ukituen kopurua.

e) Gizartean eragindako nahastea.

f) Bidegabeko mozkinaren zenbatekoa, ondasun edo zerbitzuaren balioaren aldean.

g) Doloa edo errua.

h) Arau-haustea merkaturan duen lekua.

i) Arau-hausteak errepikatu edo horietan bererori ote den.

j) Arau-haustearen salmenta kopurua.

41. artikulua. Subjektu erantzuleak.

1. Erantzule izanen dira, dolo nahiz zuzenbidegabekeriaren bidez, Foru lege honetan arau-haustetzat jotzen diren ekintza edo omisio antijuridikoak egiten dituzten edo halako ekintzetan parte hartzen duten pertsona fisiko eta juridikoak.

2. Ondasun edo zerbitzu beraren inguruan hainbat subjektu esku hartzen dutenean (ekoizle, inportatzaile, banatzaile, xehekari eta abarrek), bakoitzak erantzun beharra izanen du berak egin duen arau-hausteagatik. Zehapen bana ezarriko zaie, bakoitzak egin duen arau-haustearen inguruabar objektibo eta subjektiboak aintzat hartuz.

3. Produktu ontziratu, etiketadun edo erabat itxiekin egiten diren arau-hausteengatik, etiketan, aurkezpenean edo publizitatean ageri den enpresak, inportatzaileak edo lehenbiziko merkatura-tzaileak izanen du erantzukizuna.

Bere erantzukizunetik aske geratu ahal izanen da, frogatzen baldin badu beste batzuek produktuak faltsutu edo behar ez bezala manipulatu eta kontserbatu dituztela. Beste pertsona horiek erantzukizuna izanen dute, produktua nola manipulatu edo kontserbatu behar den adierazi bazaie.

Ontziratzailea ere erantzule izanen da, markaren jabearekin batera arau-haustearen jakitun izan dela frogatzen bada.

4. Solteko produktuekin egiten diren arau-hausteen erantzulea haien edukitzailea izanen da, salbu eta lehenagoko edukitzaile baten erantzukizuna ziurtasunez frogatzen ahal denean.

42. artikulua. Zehapenak.

1. Foru lege honetan tipifikatutako arau-hausteen erantzuleei ondoko zehapenak ezarriko zaizkie:

a) Arau-hauste arinak: idatzizko zentzarazpena edo gehienez 3.000 euroko isuna.

b) Arau-hauste larriak: 3.000,01 eurotik 15.000 eurora bitarteko isuna. Zenbateko hori gainditu ahal izanen da arau-haustearen xede diren produktu edo zerbitzuen balioa boskoiztu arte.

c) Arau-hauste oso larriak: 15.000,01 eurotik 600.000 eurora bitarteko isuna. Zenbateko hori gainditu ahal izanen da arau-haustearen xede diren produktu edo zerbitzuen balioa boskoiztu arte.

2. Isunaren zenbatekoa zehaztean kontuan hartuko da Foru lege honen 40. artikuluan xedatutakoa.

Zehapen ebazpena eman aurretik egoera zuzendu eta eragindako kaltea konpontzen bada, hori kontuan hartuko da isunaren zenbatekoa finantzerakoan.

3. Arau-hausleari behar adinako isuna ezarriko zaio, arauak urratzea harentzat ez dadin izan arauak betetzea baino onuragarriagoa. Betiere proportzionaltasunaren printzipioari jarraituko zaio eta arau-haustearen larritasunaren arabera zehapena ezarriko da.

4. Nafarroako Gobernuari dagokio isunen zenbatekoak aldi behin berrikusi eta eguneratzea.

43. artikulua. Beste zehapen batzuk.

1. Espedientea ebazteko eskumena duen agintariak, zehapen osagarri gisa, salgai aizunduak,

faltsutuak, iruzurrezkoak, identifikatu gabekoak eta, oro har, kontsumitzaileentzat arriskutsuak izan daitezkeenak dekomisatzeko agindu ahal izanen du, instruktoreak hala proposatuz gero. Salgaiak hartu, gordailutu, dekomisatu eta suntsitzeko gasuak arau-hauslearen kontura izanen dira.

2. Arau-haustea oso larria denean, espedientea ebazteko eskumena duen agintariak, neurri osagarri edo autonomo gisa, arau-haustearen erantzukizuna duen enpresa, establezimendua edo industria aldi baterako ixtea dekretatu ahal izanen du, gehienez bost urterako.

3. Kontsumitzaile edo erabiltzaileen segurtasunaren kontrako benetako arriskua sortu edo kaltea eragiten denean, arau-hauste larri edo oso larrietan berrerortzen denean edo arau-hausteak nahita egin direla egiaztatzen denean, zehapena eredu-garria izan dadin, prozedura ebazten duen agintariak zehapena jendaurrean erakustea erabaki ahal izanen du. Horrelakoetan aditzera emanen dira pertsona natural edo juridiko erantzuleen izen-abizenak, deitura edo sozietatearen izena, arau-hausteen mota eta izaera, dena delako produktu, jarduera edo zerbitzuaren nondik norakoak eta ezarritako zehapen nagusia. Datu horiek Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta gehien zabaltzen diren komunikabideetan argitaratuko dira eta arau-hausleak ordainduko ditu argitalpenaren gastuak.

4. Publizitatearen arloko arau-hausteak egiten direnean, organo zehatzaileak arau-hausleari publizitatea zuzentzeko eskatu ahal izanen dio. Zehatutako jarduketa egin zen baldintza berberetan edo antzekoetan egin beharko da zuzenketa.

5. Halaber, zehapen gisa, enpresa edo profesional erantzuleari ordainarazi ahal izanen zaizkio ikertutako arau-haustea egiaztatzeko egin diren analisisen gastuak eta laginak hartzeagatik edo kontrolatan produktuak hondatzeagatik Administrazioak eman dituen kalte-ordainak.

44. artikulua. Zehapenen ondorio osagarriak.

1. Zehapen organoak, arau-hauste oso larriak egiten direnean, enpresa zehatuari emandako edo hark eskatutako laguntza ofizialak ezeztatu, deuseztatu, eten edo ukatu daitezela proposatu ahal izanen dio agintari eskudunari.

2. Halaber, gaiari buruzko legerian ezarritakoa erekin bat, arau-hauste oso larriengatik zehapena ezartzen zaien enpresei Nafarroako Foru Komunitateko administrazio publikoekin kontratuak egiteko gaitasuna kendu ahal izanen zaie bost urterako, zehapena sinatzen den egunetik hasita.

45. artikulua. Arau-hausteen preskripzioa.

1. Foru lege honetan aipatutako arau-haustek honako epe hauek iragaten direnean preskribatuko dira:

- a) Arau-hauste oso larriak, hiru urteren buruan.
- b) Arau-hauste larriak, bi urteren buruan.
- c) Arau-hauste arinak, urtebeteren buruan.

2. Preskripzio epea arau-haustea egiten den egunean hasiko da, eta zehapen prozedura hasten denean eten eginen da, interesatua horren jakitun bada.

46. artikulua. Zehapenen preskripzioa.

1. Zehapenak honako epe hauek iragaten direnean preskribatuko dira:

- a) Arau-hauste oso larriengatiko zehapenak, hiru urteren buruan.
- b) Arau-hauste larriengatiko zehapenak, bi urteren buruan.
- c) Arau-hauste arinengatiko zehapenak, urtebeteren buruan.

2. Zehapenen preskripzio epea zehapena ezartzen duen ebazpena irmotu eta biharamunetik hasiko da kontatzen.

Xedapen gehigarri bakarra. Zehapen araubideari buruzko bidaltze-oharrak.

Foru lege honen IV. tituluan ezarritakoaren ondorioetarako, arau-hausteen tipifikazioa eta kalifikazioa eta zehapenen mailakapena arautzen dituzten beste xedapen batzuek Kontsumitzaile eta Erabiltzaileak Defendatzeko uztailearen 19ko 26/1984 Lege Orokorrean bidaltzen duten guztietan Foru lege honetako artikuluetara bidaltzen dutela ulertuko da.

Xedapen indargabetzaile bakarra.

Indargabetzen dira Foru lege honi kontra egiten dioten maila bereko nahiz apalagoko xedapen guztiak.

Azken xedapenetan lehenbizikoa. Foru Legearen garapena eta aplikazioa.

1. Baimena ematen zaio Nafarroako Gobernuari foru lege hau garatu eta aplikatzeko behar diren erregelamenduzko arau guztiak eman ditzan.

2. Foru lege honek indarra hartu eta urtebeteko epean Nafarroako Gobernuak erregelamendua egiten du etxebizitzaren salerosketan eta errentamenduan eman beharreko informazioari dagokionez kontsumitzaile eta erabiltzaileen babesa arautzeko.

Azken xedapenetan bigarrena. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hogeiki egunera hartuko du indarra.

Foru Lege proiektua, Nafarroako segurtasun publikoari buruzkoa.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2006ko martxoaren 13an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Foru Diputazioak, 2006ko otsailaren 20an hartutako erabakiaren bidez, Nafarroako segurtasun publikoari buruzko Foru Lege proiektua igorri du Nafarroako Parlamentura.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Nafarroako segurtasun publikoari buruzko Foru Lege proiektua prozedura arruntari jarraikiz tramitatzea.

2. Proiektu horretaz irizpena emateko ahalmena Lehendakaritza, Justizia eta Barne Batzordearen esku uztea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Proiektua argitaratzen denean, **hamabost egun balioduneko epea hasiko da eta 2006ko apirilaren 7ko eguerdiko hamabietan bukatuko da.** Epe horretan, Erregelamenduko 126. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztu ahalko dizkiote proiektuari.

Iruñean, 2006ko martxoaren 13an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

Nafarroako segurtasun publikoari buruzko Foru Lege proiektua

ZIOEN AZALPENA

1.

Espainiako Konstituzioak, Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoak, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, Segurtasun Indar eta Kidegoei buruzko martxoaren 13ko 2/1986 Lege Organikoak eta Nafarroako Polizia Kidegoei buruzko Foru Legearen Testu Bateginak (urriaren 14ko 213/2002 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsia) ezarri dute, funtsean, Nafarroako Segurtasun Publikoari buruzko Foru Lege honen oinarri

izanen den eskumen-markoa. Testuinguru horretan, kontuan izanik Nafarroako administrazio publikoen menpeko polizia-kidegoen aniztasuna eta gizartearen segurtasunaz dagoen kezka gero eta zabalagoa, beharrezkoa da Nafarroako Foru Komunitateak segurtasun publikoaren arloan dituen eskumenak segurtasun sistema koordinatu eta bakarrean antolatuko dituen araua egitea. Sistema horrek gai izan behar du herritarren segurtasuna bermatuko duten politika errealista, praktikoa eta eraginkorrak ezarri eta garatzeko, erakundeen leialtasunaren printzipioari hertsiki lotuta eta, horrenbestez, esku hartu behar duten administrazio publiko guztien eskumenak erabat errespetatuz. Arau horrek foru legea izan behar du ezinbestean, haren helburuen lorpena ekarriko duten neurri, betebeharrak eta eskubide guztiak ezarri ahal izan daitezten.

2.

Foru Lege honen xedea da Nafarroan segurtasun publikoko sistema egokia eratzea, administrazio publiko guztiak partaide izanen dituen eta osagarritasunaren, lankidetzaren, koordinazioaren, elkarren informazioaren eta erakundeen leialtasunaren printzipioetan oinarritutako dena. Gainera, herritarrei parte hartzeko aukera emanen die segurtasun kontseiluen bitartez. Foru Lege honek, beraz, ardura partekatze eskatzen die Nafarroako Gobernuari eta administrazio nafarrei, bereziki udalei, eta ildo beretik koordinazio eta plangintzarako tresnak ezartzen ditu, besteak beste tokiko segurtasun batzordeak, lankidetzaren hitzarmenak, Polizia-informazioen sistema bateratua eta hainbat motatako segurtasun planak. Azken batean, Foru Lege honen bidez eraginkortasuna areagotu nahi da eskura dauden baliabideak zentzuz eta iraunkortasunez erabiltzeko eta bide horretatik herritarren segurtasunaren inguruan emaitza egokiak lortzeko.

Herritarrei begira, segurtasun publikoaren sistemak, eta bereziki poliziaren jarduerak, herritarrentzako zerbitzu publikoen ereduari jarraitzen dio eta halako zerbitzuen printzipioak ditu oinarri: gizartearen eskariari egokitzea, proportzionaltasuna eta arrazionaltasuna, hurbiltasuna eta erantzun azkarra, polizien ekintza multiformea, eraginkortasuna, erantzunaren planifikazioa eta emaitzen ebaluazioa, eta segurtasunarekin zerikusia duten baliabide eta bitarteko guztien arteko harremanak. Polizia-jardueraren funtsezko printzipio horietatik abiatu behar da gaurko Polizia-sistemaren bilakera, gizartearen kontrako portaerei aurre egin edo

erantzuteko ekintza hutsetatik metodo modernoagoetara pasatzeko. Erantzuna Polizia-jardueraren osagai nagusia izanik ere, metodo berrietan prebentzio jarduera ere lehenesten da, bai eta plangintzan eta azterketan oinarritutako teknika berriak ere, guztiz praktiko eta metodikoak, behin eta berriz gertatzen diren edo poliziaren esku ez dauden alderdiak dituzten segurtasun arazoei aurre egiteko Printzipio horiek aplikatu ahala, zalantzarik gabe polizia herritarrei hurbilduko zaie eta azkenik gizartearekin bat egindako polizia lortuko da, herritar eta erakundeen arteko lotura estuagoa sustatzeko gai izanen dena, gizartearen batasun handiagoaren oinarri gisa.

Beste alde batetik, Foru Komunitateko lurralde eremu guztietan segurtasunaren planifikazio orokorra eginez, Segurtasun Plan Orokorretik eta udalerrietako nahiz udalez gaindiko planetatik abiatuta, Polizia-erakunde guztien eginkizun bakarra ezartzen da, alegia, herritarren interes orokorren alde lan egitea eraginkortasunez, elkarrekin koordinaturik eta indarra duen legeriak ezartzen duen esparruan. Horrek lan-filosofia bateratua sortuko du, planifikatutako xedek lortzera bideratua.

3.

Foru Lege hau dela medio, administrazio publikoek, agintariak, polizia-kidegoek eta segurtasunarekin zerikusia duten gainerako zerbitzu publiko edo pribatuak batera parte hartu ahal izanen dute segurtasun publikoari buruzko politiken diseinuan, aplikazioan eta ebaluazioan. Berrikuntza nagusia, ordea, herritarrek beren segurtasun arazoan konponketan parte hartu ahal izatea da. Parte-hartze horri esker sistemak berak eta hura osatzen duten polizia-zerbitzuak hobeki ezagutu eta ulertu ahal izanen dituzte delinkuentzia, indarkeria eta, oro har, herritarrek beren ingurune hurbilean segurtasun eza dela-eta jasaten dituzten arazoak.

Espainiako Konstituzioak herritarren segurtasunaren kontzeptua darabil ordena publiko tradizionalaren orde. Aldaketa garrantzitsu horrek eragin handia du legea betearazi behar duten erakundeen funtzionamenduan, izan ere ikuspegi horretatik segurtasun publikoak berezko osagaia baitu giza elementua, jendea hain zuzen. Horrela herritarrek leku nagusia hartzen du, alde batetik botere publikoaren arretagune nagusia eta bestetik bere segurtasunaren funtsezko eragilea delako. Ildo horretan, segurtasun publikoaren arloko politikak egiteko edozein prozesuk sustatu eta erraztu egin behar du herritarrek ere politika horiek formulatzeko ardura har dezaten, segurtasun zerbitzuen eta herritarren edo horien elkarrekin arteko lankidetzan sakondu behar du eta, oro har, segurtasun publi-

koaren arloko administrazioari bidea eman behar dio herritarrengana gehiago hurbiltzeko. Esparru horretan kokatu behar dugu Foru Lege hau, beraren bidez segurtasun kontseiluak eratuko baitira Foru Komunitatean. Egunero gizartearen bizikidetzaz garatzeko prest agertzen diren sektore zabalenei lekua eskaini nahi zaie kontseilu horietan eta segurtasun politikaren diseinu berria lortu nahi da, orain arte nagusi izan den eskema itxia gaindituta, segurtasuna ez baita poliziaren eta erakunde espezializatuen kontua bakarrik.

4.

Foru Legeak honako egitura du: sei kapitulutan bildutako hogeita bederati artikulu, xedapen gehigarri bat, xedapen indargabetzaile bat eta azken bi xedapen.

I. kapituluan Foru Legearen xedea eta helburuak definitzen dituzten xedapen orokorrak daude. Segurtasun publikoko sistemaren printzipio nagusiak azaltzen dira eta segurtasunaren arloan esumenak dituzten administrazio publikoen arteko harremanak arautzen dituztenak zehazten dira, bai eta Nafarroako administrazio publikoen menpeko polizia-kidegoen jardueraren oinarri izanen diren printzipioak ere; eta, azkenik, herritarrekiko harremanei buruzko printzipioak jasotzen dira.

II. kapitulua segurtasun publikoko sistemaren antolaketaren gainekoa da. Arlo horren antolamendu administratiboa biltzen du, berariazko eginkizunak esleitzen dizkie administrazio autonomoari eta toki administrazioari, eta segurtasun publikoaren eremuko parte-hartze eta koordinazio organoak arautzen ditu, hala nola Herritarren Segurtasunerako Kontseilua, toki kontseiluak, Segurtasun Publikorako Departamentu arteko Batzordea eta segurtasunerako toki batzordeak.

III. kapituluak udaltzaingoan koordinazioaz dihardu, Nafarroako Gobernuari eginkizunak esleitzen dizkio eta Nafarroako Udaltzaingoak Koordinatzeko Batzordea arautzen du.

IV. kapituluak segurtasunaren planifikazioaz dihardu eta plan motak, planen gutxienezko edukia eta haien onespena arautzen ditu.

V. kapituluak administrazio publikoen arteko harremanei buruz dihardu eta horiek sustatzeko tresnak ezartzen ditu, hala nola, informazio estatistikoak, polizia-informazioen sistema bateratua edo Nafarroako Gobernuarekiko lankidetzaz hitzarmenak. Gainera, Foruzaingoaren eta udaltzaingoaren arteko eginkizun-mugaketa arautzen du eta polizia-kidego bakoitzari dagozkion eginkizunak finkatzen, baita baterako eginkizunak ere.

VI. kapituluak herritarrekiko harremani buruz dihardu, herritarrei beren ordezkari organoen bidez segurtasun publikoaren arloko lanetan parte hartzeko eskubidea onartzen die, bai eta kexa eta eskaerak egiteko eskubidea ere, eta, azkenik, Nafarroako administrazio publikoei beren segurtasun zerbitzu publikoen karta bana egiteko agintzen die.

Foru Legearen azken zatiko xedapen gehigarriari adierazten da Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari zein agintari duden eskumena segurtasun arloko zehapenak ezartzeko, Herritarren Segurtasunaren Babesari buruzko Lege Organikoan eta Segurtasun Pribatuari buruzko Legean xedatutakoaren arabera.

I. KAPITULUA **Xedapen orokorrak**

1. artikulua. Xedea eta helburuak.

1. Foru Lege honen xedea da Nafarroako Foru Komunitateak segurtasun publikoko gaietan dituen eskumenak, batez ere polizia arlokoak, segurtasun sistema orokor batean antolatzea. Sistema horrek partaide izanen ditu administrazio publiko guztiak, bai eta segurtasunaren arloan erantzukizuna duten koordinazio organoak eta herritarrek parte hartzekoak, eta beraren bidez herritarren segurtasuna bermatzeko politika errealista, praktikoa eta eraginkorrak ezarri eta garatuko dira.

2. Zehazki, hona hemen Foru Lege honen helburuak:

a) Herritarren eskubide eta askatasunak, bake publikoa, bizikidetzaren egokia eta batasun soziala eraginkortasunez bermatuko dituzten prebentzio eta babes politika publikoen ezarpena eta garapena sustatzea.

b) Segurtasun publikoarekin zerikusia duten administrazio, agintari eta zerbitzuen arteko lankidetzan eta koordinazioan sakontzea.

c) Herritarrei Nafarroako Foru Komunitate osoan segurtasun zerbitzu homogeneoak izateko eskubidea bermatzea.

d) Segurtasun kontuetan administrazio eta agintaritzaren publikoek ardurak partekatuta ditzaten eta, halaber, herritarrek segurtasun arloko politiken sorreran eta jarraipenean parte har dezaten sustatu eta erraztea.

e) Bide ematea segurtasun publikoaren arloko administrazioa herritarrei gehiago hurbiltzeko eta haren funtzionamendua bizkortzeko.

f) Herritarren konfiantza lortzea, hau da, herritarrei erakustea polizia eta botere publikoak lane-

an ari direla eta eraginkortasunez arduratzen direla segurtasunaren inguruko egiazko arazoez.

2. artikulua. Segurtasun publikoko sistema.

Nafarroako segurtasun publikoko sisteman honakoak biltzen dira: Foru Komunitatean segurtasun gaietan eskumena duten erakunde eta agintariak, polizia-kidegoak eta segurtasunaren arloko gainerako zerbitzu publiko nahiz pribatuak, eta segurtasunaren arloko koordinazio eta parte-hartze organoak.

3. artikulua. Oinarrizko printzipioak.

1. Foru Lege honetan ezarritako segurtasun publikoko sistema gauzatzeko, segurtasunaren eremuan ari diren administrazio publiko eskudunek beren jardunean printzipio hauek beteko dituzte: erakundearen leialtasuna, osagarritasuna, elkarren informazioa, lankidetzaren koordinazioa eta laguntza.

2. Segurtasun publikoko sistemak, eta bereziki Nafarroako administrazio publikoaren menpeko polizia-kidegoen jarduerak, ondoko printzipio hauek izanen ditu oinarri:

a) Arrisku eta mehatxuei aurrea hartzea.

b) Gizartearen eskariaren arabera jardutea.

c) Gizartearen aurkako egintzen kontrolaren proportzionaltasuna eta arrazionaltasuna.

d) Nonahi egotea, herritarrengana hurbiltzea eta laster erantzutea.

e) Kideen jarduketak askotarikoak izatea, espezializazioa ukatu gabe.

f) Eraginkortasuna ekintzan eta bitartekoen nahiz baliabideen esleipenean.

g) Arazoak zehaztea, erantzuna planifikatzea eta emaitzak ebaluatzea.

h) Segurtasunarekin zerikusirik izan eta bazterkeriaren aurkako borrokan eginkizunen bat duten erakunde, zerbitzu eta antolakunde publiko zein pribatuekin harremanak izatea.

3. Gizartearen aurkako egintzarik eza da segurtasun sistema eraginkorraren froga, eta ez poliziak halako egintzen aurka ari direla ikustea.

4. Herritarrekiko harremanetan, segurtasun publikoko sistema integralak partaidetzaren, gardentasunaren eta informazioaren printzipioak ditu oinarri.

4. artikulua. Definizioak.

Foru Lege honek agintzen duenerako, honako definizioak hartuko dira aintzat:

a) Gizartearen aurkako egintzak dira portaerari buruzko arau aldarrikatu edo onartuen aurkako portaerak, berez edo beren emaitzen ondorioz kalte egiten diotenak gizarte harremanetan behar den harmoniari.

b) Prebentzioa da gizartearen aurkako egintza-kausak deuseztatzea, edo, deuseztatzerik ez badago, balizko egilearen asmoa aldaraztea, ekin-tzari uko egin diezaion.

II. KAPITULUA

Segurtasun sistemaren antolaketa

5. artikulua. Nafarroako Gobernuua.

1. Konstituzioak, Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoak eta indarra duen legeriak ezarritako eskumen-esparruan, Nafarroako Gobernuari dagokio eskubide eta askatasunen erabilera librea babestea eta herritarren segurtasuna bermatzea Foru Komunitatean, deusetan galarazi gabe Estatuko agintari eta segurtasun indar eta kidegoen eskumeneko eginkizunak eta beste botere publiko batzuen ahalmen eta betebeharrak.

2. Aurreko idatz-zatian adierazitakoaren arabera, Nafarroako Gobernuari dagokio:

a) Segurtasun publikoaren arloko helburu orokorrak eta funtsezko gidalerroak finkatzea.

b) Nafarroako Segurtasun Plan Orokorra onestea.

c) Zehapenak ezartzeko ahalmena erabiltzea Foru Lege honetan ezarritako eran.

d) Foru Lege honek eta indarra duten gainerako legeek ematen dizkioten beste eginkizun guztiak betetzea.

6. artikulua. Segurtasun publikoaren arloan eskumena duen departamentua.

1. Segurtasun publikoaren arloko eskumena ematen zaion departamentua, Nafarroako Gobernuak ezarritako helburu orokorren arabera, Foru Komunitateko herritarren babesari eta segurtasunari buruzko politika gauzatzeko ardura duen organoa da, eta berari dagozkio, ildo horretan, Foruzaingoaren goi zuzendaritza, udaltzaingoaren koordinazioa eta Foru Lege honetan eta indarra duen antolamenduko gainerako arauetan ezartzen zaizkion beste eginkizun guztiak.

7. artikulua. Segurtasun publikoaren arloko agintari publikoak.

1. Foru Lege honen ondorioetarako honakoak dira segurtasun publikoaren arloko goi agintari publikoak:

a) Arlo horretako eskumena ematen zaion departamentuko kontseilari titularra.

b) Alkateak, beren eskumenen esparruan eta udal eremuan.

2. Barne gaietako eskumena duen kontseilariak eginkizun hauek izanen ditu:

a) Nafarroako Gobernuko segurtasun politika betearaztea.

b) Nafarroako Foruzaingoaren goi zuzendaria izatea.

c) Herritarren segurtasuna zaindu eta berrezartzeko behar diren jarduketak egin daitezela agintzea.

d) Nafarroako udaltzaingoaren koordinazioa sustatzea.

e) Prestakuntzarako eta espezializaziorako politikak sustatu eta koordinatzea.

f) Nafarroako Herritarren Segurtasunerako Kontseiluko buru izatea.

g) Nafarroako Segurtasun Plan Orokorra Nafarroako Gobernuari aurkeztea, onets dezan.

h) Foru Lege honen helburuak lortzeko behar diren ekintzak sustatu eta koordinatzea, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren esparruan.

i) Nafarroako segurtasun publikoaren gaineko urteko txostenak Nafarroako Gobernuari aurkeztea, onets ditzan.

j) Zehapenak ezartzeko ahalmena erabiltzea, Foru Lege honetan eta indarra duten gainerako legeetan agintzen zaion moduan.

k) Segurtasun publikoaren arloan indarra duten xedapenek ezartzen dioten beste edozein eginkizun.

3. Alkateek ondoko eginkizunak izanen dituzte:

a) Tokiko Segurtasun Batzordeko buru izatea eta haren erabakiak bete daitezen begiratzea.

b) Segurtasun gaietan Udalaren jarduketak antolatu eta zuzentzea, indarra duen antolamenduari jarraituz.

c) Udaltzaingoaren edo, hala tokatzen denean, albienteen goi agintaria izatea, segurtasunarekin zerikusia duten jarduketetan.

d) Foru Lege honen helburuak betetzeko behar diren ekintzak sustatu eta koordinatzea udal eremuan.

e) Tokiko segurtasun plana onestea eta osoko bilkuran Udalari haren berri ematea.

f) Udalari tokiko segurtasun planaren aplikazioaren eta gorabeheren berri ematea urtero, osoko bilkuran.

g) Zehatzeko ahalmena erabiltzea, indarra duen legeriak agintzen dien moduan.

h) Foru Lege honek eta segurtasun publikoaren arloan indarra duten gainerako legeek ematen dizkieten gainerako eginkizunak.

8. artikulua. Nafarroako polizia-kidegoak.

1. Nafarroako Foruzaingoa eta udaltzaingoa dira Nafarroako administrazio publikoetako polizia-kidegoak.

2. Foruzaingoa Nafarroako Foru Komunitatea izanen du jarduteko eremua.

3. Udaltzaingo bakoitzak bere udalerria izanen du jarduteko eremua, premiazko egoera berezitan izan ezik, halakoetan udal mugapetik kanpo jardun ahal izanen baitute, toki entitateek horretarako sinatutako lankidetzak hitzarmen edo koordinazio planetan ezarritako baldintzak betez. Segurtasun publikoaren arloan eskumena duen departamentuak oniritzia eman beharko du aurretiaz. Alabaina, larrialdietan nahikoa izanen da laguntza behar duen lurraldeko agintari eskudunak aurretiaz laguntza eskatzea.

Halaber, toki korporazioetako agintariak babes-teko eginkizunak betetzen ari direnean, udal mugapetik kanpo jardun ahal izanen dute, segurtasun publikoaren arloan eskumena duen departamentuaren baimenarekin, jarduketa horiek oso osorik Nafarroako Foru Komunitatearen barnean egiten dituztenean.

9. artikulua. Herritarren Segurtasunerako Kontseilua.

1. Nafarroako Foru Komunitateko Herritarren Segurtasunerako Kontseilua sortu da.

2. Herritarren Segurtasunerako Kontseilua segurtasun gaietan kontsultak egiteko eta parte hartzeko organoa da Nafarroako Foru Komunitatean.

3. Kontseiluak eginkizun hauek izanen ditu:

a) Administrazio publikoei aholku ematea, une eta toki bakoitzean segurtasun publikorako politika egokia diseinatu behar duten erakunde espezializatuei gomendioak emanez eta gizartearen barneko gertaera kolektiboei bereziki kontu eginez.

b) Nafarroako segurtasun publikoaren egoera orokorra aztertu, ikertu eta ebaluatzea, herritarren

segurtasunaren inguruko erreferente adierazgarri-enak oinarri harturik, portaeren azterketak eta egoeren analisiak sustatuz, segurtasun indar eta kidegoetako kideen lanak euskarria izan dezan inguruabar zehatz eta baloragarrietan.

c) Herritarren lasaitasuna eragozten ahal duten eragileak zaintzea, hala nola xenofobia, arrazakeria, kaleko indarkeria, taldeen indarkeria edo antzeko gertaerak, herritarren edo gizarteko balio funtsezkoenen kalterako izan daitezkeen gatazka eta arriskuei aurrea hartzeko.

d) Nafarroako segurtasun egoera hobetzeko neurri orokorrak sustatzea eta segurtasun publiko-arekin zerikusia duten administrazio publiko guzti-en zerbitzuak hobetzeko ekimenak bultzatzea.

e) Foru Komunitateko segurtasun publikoa dela eta Nafarroako Gobernuak onesten duen urteko txostena ikustea.

f) Indarra duten arauetan ezartzen zaizkion gainerako eginkizunak.

4. Herritarren Segurtasunerako Kontseilua segurtasun publikoaren arloko eskumena duen departamentuari atxikiko zaio. Departamentu horrek behar adinako laguntza teknikoa eman beharko dio bere eginkizunak egoki bete ditzan.

5. Kontseilua menpean duen departamentuak berariaz kontusail bat sortuko dio bere funtzionamenduari eusteko eta bere eginkizunetan bidezko diren jarduketak egiteko.

6. Herritarren Segurtasunerako Kontseiluaren osaera, antolaketa eta funtzionamendua erregelamenduz zehaztuko dira, foru dekretu bidez. Betiere, zein departamenturi dagoen atxikita hango kontseilari titularra izanen du buru, eta honakoak kide izanen ditu:

a) Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren ordezkariak.

b) Nafarroako toki entitateen ordezkariak.

c) Gizarteko interesak ordezkatzan dituzten herritar erakunde edo entitateen ordezkariak.

Halaber, Estatuko Administrazioaren, epaileen eta fiskalen ordezkariak kontseilukide izaten ahal-ko dira, haien erakundeek hala erabakitzen badute.

7. Nafarroako Segurtasun Kontseiluko buruak proposatu eta Kontseiluak hala erabakiz gero, herritarren segurtasunerako eskualde kontseiluak eratu ahal izanen dira. Horiek Kontseiluaren menpekoak izanen dira, eta udalerria baino eremu zabalagoa izanen dute.

10. artikulua. Herritarren segurtasunerako toki kontseiluak.

1. Udaltzaingoa duten udalerrietako alkateek herritarren segurtasunerako toki kontseiluen sorrera sustatu ahal izanen dute.

2. Herritarren segurtasunerako toki kontseiluek alkatea edo berak eskuordetutako pertsona izanen dute buru, eta kide hauek izanen dituzte:

a) Herritarren segurtasunarekin zerikusia duten udal zerbitzuen ordezkariak.

b) Udalerriko bizilagun eta herritarren elkarte eta entitateen ordezkariak.

c) Ikasleen gurasoen elkarteen ordezkariak.

d) Beste edozein entitate, erakunde edo elkar-teren ordezkariak, barne-arauei jarraituz hautatuak eta haien lehendakariak izendatuak.

3. Herritarren segurtasunerako toki kontseiluek beren udalerrietan segurtasun egoera hobetzeko neurriak aztertuko dituzte eta organo eskudunei proposatuko dizkiete.

4. Herritarren segurtasunerako toki kontseiluek berek eginen dituzte beren funtzionamendurako arauak.

11. artikulua. Segurtasun Publikorako Departamentu arteko Batzordea.

1. Segurtasun Publikorako Departamentu arteko Batzordea sortu da. Segurtasun publikoari lotutako gaietan (barne gaiak, justizia, garraioa, errepideak, trafikoa eta bide-segurtasuna, ikuskizun publikoak, gizarte zerbitzuak, adingabeen babesa, genero-indarkeria, hezkuntza, osasuna, ingurumena, ekonomia eta ogasuna, toki administrazioa eta abar) eskumena duten departamentuetako zuzendari nagusiek osatzen dute.

2. Batzordeburua eta idazkaria segurtasun publikoaren arloko eskumena duen departamentukoak izanen dira. Batzordeburuak beste zuzendari nagusi batzuei edo zerbitzu-zuzendariei deitu ahal izanen die Batzordeak esku artean dituen gaiak hala eskatzen dutenean.

3. Batzordeak eginkizun hauek izanen ditu:

a) Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio departamentuen jarduketak koordinatuko direla bermatzea, segurtasun publikoan eraginik badute.

b) Departamentu guztietan plangintza sustatu eta bultzatzea, segurtasun publikoari buruzko politika orokorra departamentuetako jarduketa sektorialetara eramateko.

c) Nafarroako Segurtasun Publikorako Plan Orokorra nola eta zenbateraino betetzen den zain- tzea.

4. Batzordeak bilera egin beharko du Nafarroako Segurtasun Publikorako Plan Orokorra ezagutzeko. Gainera, Batzordeburuak bilera deia eginen du sei hilean behin, gutxienez.

5. Segurtasun Publikorako Departamentu arteko Batzordearen funtzionamendua, gainerako guztian, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari buruzko abenduaren 3ko 15/2004 Foru Legearen III. tituluko III. kapituluan kide anitzeko organoentzat ezarritakoari lotuko zaio.

12. artikulua. Nafarroako Segurtasun Batzordea.

Nafarroako Segurtasun Batzordea Foruzaingoaren eta Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoen arteko koordinaziorako organo gorena da, Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 51. artikuluko 2. idatz-zatian ezarritakoarekin bat.

13. artikulua. Tokiko segurtasun batzordeak.

1. Udaltzaingoa duten udalerrietan Tokiko Segurtasun Batzordea eratu beharko da.

2. Batzorde hori lankidetzeta eta koordinaziorako organoa izanen da udalerrian diharduten polizia-kidego eta gainerako segurtasun zerbitzuentzat.

3. Tokiko Segurtasun Batzordeko burua udalerriko alkatea izanen da eta batzordekideak ondo-koak izanen dira:

a) Herritarren segurtasunaren arloko zinegotzi eskuordea.

b) Udaltzainburua.

c) Foruzainburua edo berak eskuordetzen duen foruzain aginteduna.

d) Guardia Zibileko eta Polizia Kidego Nazional-eko buruak edo beraiek eskuordetzen dituztenak, Estatuko Administrazioak hala erabakitzen badu.

4. Batzordeburuak eta batzordekideek nahi dituzten teknikariak eramaten ahal dituzte Tokiko Segurtasun Batzordearen bileretara. Teknikari horiek hizpidea izanen dute, baina ez boto eskubiderik.

5. Aztertu beharreko gaien arabera, Tokiko Segurtasun Batzordearen bileretara joan ahal izanen dira, hizpidearekin baina boto eskubiderik gabe, entitate, erakunde eta elkarteen ordezkariak, bai eta herritarren segurtasunarekin zerikusia duten zerbitzuen arduradunak ere, batzordeburuak deituz gero.

6. Tokiko Segurtasun Batzordeek eginkizun hauek izanen dituzte:

a) Udalerriko segurtasun publikoaren egoera aztertu eta baloratzea, eta beharrak nahiz eskura dauden baliabideak ebaluatzea.

b) Tokiko segurtasun plana prestatzen parte hartzea, haren burutzapena zaintzea eta haren jarraipena eta ebaluazioa egitea.

c) Udalerrian diharduten segurtasun kidego eta zerbitzuen arteko lankidetzak, koordinazio eta laguntzarako bideak eta prozedurak ezartzea.

d) Udalerrian diharduten segurtasun pribatuko zerbitzuak ezagutzea. Horretarako, zerbitzu horien arduradunei Batzordearen aurrera agertzeko eskatu ahal izanen zaie.

e) Indarra duen antolamenduan ezartzen zaizkion gainerako eginkizunak.

7. Tokiko Segurtasun Batzordeak udalerrian diharduten segurtasun kidego eta zerbitzuen lanak koordinatzeko mahaia izendatu ahal izanen du, eta hura osatuko duten poliziaburuak izendatu, honako eginkizunak bete ditzan:

a) Batzordeak hartzen dituen erabakiak beteaz.

b) Udalerrian diharduten segurtasun kidego eta zerbitzuen arteko informazio trukea bermatu.

c) Udalerriko segurtasun kidego eta zerbitzuen lanen arteko koordinazio eraginkorra ziurtatu.

d) Segurtasun kidego eta zerbitzuen arteko lankidetzak, koordinazioa eta laguntza hobetzeko proposamenak prestatu eta Batzordeari aurkeztu, udalerrian haien eraginkortasuna areagotze aldera.

8. Betiere segurtasun indar eta kidegoek beren agintari organikoen aginduetara jardun beharko dute.

III. KAPITULUA Udaltzaingoak koordinatzea

14. artikulua. Koordinazioa.

Kapitulu honen ondorioetarako, koordinazioaren definizio hau hartu beharko da kontuan: sistema egokiak zehaztea jarduteko irizpideak harmonizatu ahal izateko, elkarri informazioa emateko, langileen eta baliabide materialen hornidura homogenea izateko eta administrazio eskudunen arteko harremanetarako mekanismoak sortzeko, udaltzaingoek segurtasun publikoaren sistema osoan burutu beharreko ekintzen integrazioa lortze aldera.

15. artikulua. Eginkizunak.

1. Udaltzaingoaren koordinazio gaitetan Nafarroako Gobernuari dagozkion eginkizunak segurtasun publikoaren arloko eskumenak dituen departamentuak beteko ditu.

2. Udaltzaingoaren koordinazioak honako eginkizun hauek bilduko ditu:

a) Udaltzaingoaren antolamenduari eta funtzionamenduari buruzko erregelamenduek bete beharreko oinarrizko arauak ezartzea.

b) Udaltzaingoaren baliabide teknikoak, uniformeak, defentsarako bitartekoak, ordainsariak eta kreditazio sistema bateratu daitezzen sustatzea.

c) Udaltzaingoetan sartzeko hautapenari eta oinarrizko prestakuntzari buruzko irizpideak finkatzea eta horretarako behar diren baliabideak ezartzea.

d) Udaltzainen lanbide prestakuntzaren hobekuntza sustatzea, behar diren baliabideak ezarriz (hala nola, prestakuntza, hobekuntza, espezializazio eta sustapen ikastaroak) Nafarroako Segurtasun Eskolaren bidez.

e) Datu-igortzen eta datu-base informatizatuen sistema orokorra sustatzea.

f) Toki entitateen artean izan litekeen lankidetzak antolatzea, unean uneko edo aparteko betebeharrak asetzeko.

g) Babes zibilaren arloko jarduketak koordinatzea.

h) Baterako jarduketak egitea bide segurtasuna hobetzeko.

i) Udaltzaingoaren eraginkortasuna hobetzeko behar diren azterlan eta neurriak sustatzea.

j) Toki entitateei segurtasun publikoaren gainean aholku ematea.

k) Indarra duen legerian ezartzen den beste edozein.

3. Aurreko idatz-zatian zehaztutako eginkizunak betetzera beti errespetatuko dira udalen autonomia eta udaltzaingoaren gain dituzten eskumenak.

4. Nolanahi ere, Nafarroako Gobernuari dago, segurtasun publikoaren arloan eskumena duen kontseilariaren proposamenari jarraituz, 2. idatz-zatik a) eta b) letretan zehaztutako eginkizunei buruzko arau orokorrak ematea, Udaltzaingoak Koordinatzeko Batzordeak txostena egin ondoren; txosten horrek aldekoa izan beharko du,

proposamenaren xedea ordainsari osagarriak berdintzea denean.

16. artikulua. Nafarroako Udaltzaingoak Koordinatzeko Batzordea.

1. Nafarroako Udaltzaingoak Koordinatzeko Batzordea ezarri da, segurtasun publikoaren arloan eskumena duen departamentuko erakunde aholku-emaile gisa, udaltzaingoan koordinazioa dela eta dagozkion eginkizunak bete ditzan.

2. Batzorde hori arestian aipatu departamentuari atxikia egonen da. Batzordeko kideak honakoak izanen dira:

a) Batzordeburua: segurtasun publikoaren arloko eskumena duen departamentuko kontseilari titularra.

b) Batzordeburuordea: barne gaietan eskumena duen zuzendari nagusia.

c) Batzordekideak: toki entitateen hamar ordezkari eta segurtasun publikoaren arloan eskumena duen departamentuaren hiru ordezkari.

d) Idazkaria: batzordea atxikita duen departamentuko funtzionario bat, hizpidearekin baina boto eskubiderik gabe.

3. Toki entitateak ordezkatzan dituzten batzordekideak segurtasun publikoaren arloan eskumena duen kontseilariak izendatuko ditu udaltzaingoa duten udalerrietako ordezkarien artetik, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak proposaturik.

Segurtasun publikoaren arloko departamentu eskuduna ordezkatzan duten batzordekideak eta idazkaria departamentu horretako kontseilari titularrak izendatuko ditu.

4. Bileretara joan ahal izanen dira, hizpidearekin baina boto eskubiderik gabe, beste administrazio publiko batzuen ordezkariak, bai eta aztertu beharreko gaietan adituak diren teknikari edo aholkulariak ere, batzordeburuak eskaturik dei egiten zaienean.

5. Batzordeak berak eginen ditu bere antolamenduari eta funtzionamenduari buruzko arauak. Betiere bilera arruntak edo bereziak egin beharko ditu. Bilera arruntak urtean behin eginen dira, eta bilera bereziak batzordeko kideen heren batek eskatu edo batzordeburuak agintzen duenean.

6. Batzordeak eginkizun hauek izanen ditu:

a) Udaltzaingoak ukitzen dituzten xedapen orokorren proiektuei buruz derrigorrezko txostenak egitea.

b) Administrazio publikoetako organo eskudunei egokitzat jotzen dituen neurriak proposatzea

udaltzaingoan zerbitzuak hobetzeko eta haien baliabide teknikoak bateratzeko.

c) Batzordeburuak proposatzen dituen gaien buruzko txostenak egitea.

d) Indarra duten xedapenek haren gain uzten dituzten gainerako eginkizunak.

IV. KAPITULUA

Segurtasun arloko plangintza

17. artikulua. Segurtasun planak.

1. Segurtasun publikorako planak antolamendu tresnak dira, beraien bidez zehazten baita segurtasun kidego eta zerbitzuek nola jokatu behar duten, segurtasun publikoa, herritarren eskubide eta askatasunen erabilera baketsua eta pertsona nahiz ondasunen babesa ukitzen dituzten egoerei aurrea hartzeko edo erantzuteko orduan.

2. Segurtasun planak orokorrak edo bereziak izan daitezke, hau da, segurtasun egoera orokorrari edo segurtasun kontu zehatzei buruzkoak, eta udalerrri baterako, udalerrri batzuetarako edo Nafarroako Foru Komunitate osorako egin daitezke.

18. artikulua. Nafarroako Segurtasun Plan Orokorra.

1. Nafarroako Segurtasun Plan Orokorrean Nafarroako Foru Komunitateko bizikidetzak bake-tsua eta pertsona nahiz ondasunen segurtasuna ukitzen dituzten arrisku, jarduketa eta baliabideen aurreikuspen orokorrak biltzen dira, segurtasun pribatukoak barne.

2. Nafarroako Segurtasun Plan Orokorra prestatzea segurtasun publikoaren arloko eskumena duen departamentuaren eginkizuna da. Plana egiterakoan kontuan hartu behar dira Nafarroako Herritarren Segurtasunerako Kontseiluaren gomendioak.

3. Nafarroako Gobernuari dagokio, segurtasun publikoaren arloan eskumena duen departamentuko kontseilari titularren proposamenari jarraituz, Nafarroako Segurtasun Plan Orokorra onestea, Segurtasunerako Departamentu arteko Batzordeari eta Nafarroako Herritarren Segurtasunerako Kontseiluari erakutsi ondoren.

4. Nafarroako Segurtasun Plan Orokorra, plan zuzentzailea den aldetik, tokiko eta udalez gaindiko segurtasun planak egiteko gidalerroak eta irizpide teknikoak ezarriko ditu, behar bezalako koordinazioa eta batasuna lortzeko.

19. artikulua. Planak onestea.

1. Segurtasun publikoaren arloan eskumena duen departamentuko kontseilariari dagokio udalez gaindiko segurtasun planak onestea. Onespenaren berri eman beharko die planak eragiten dien tokiko segurtasun batzorde eta koordinazio nahiz parte-hartze organoei.

2. Alkateei dagokie tokiko segurtasun plana onestea beren udalerrietan. Gainera, plan bereziak onetsi ahal izanen dituzte, udalerriko segurtasun egoeraren arabera.

Alkateek onetsitako segurtasun planak segurtasun publikoaren arloan eskumena duen departamentuko kontseilariari igorri beharko zaizkio jakinaren gainean egon dadin, eta haien eraginpeko koordinazio eta parte-hartze organoei jakinarazi.

20. artikulua. Planen edukia.

1. Segurtasun planak egiterakoan aintzat hartu beharko dira goi mailako organoek segurtasun publikoaren arloan ezarritako politiken helburuak eta Nafarroako Segurtasun Plan Orokorrean ezarritako gidalerro teknikoak, bai eta parte hartzeko organoen gomendioak ere.

2. Segurtasun planek kontuan hartu beharko dituzte, bakoitzak bere eremuan, babes zibileko eta bide segurtasunerako planetan eta eragiten ahal dieten gainerakoetan dauden aurreikuspenak.

3. Segurtasun planen edukiak egitura homogeneoa izanen du. Gutxienez ondoko gai hauei buruzko argibide eta aurreikuspenak bildu beharko ditu:

a) Planaren eremuko segurtasun egoeraren azterketa.

b) Helburu orokorren eta lehentasunen definitzioa.

c) Helburuak lortzeko erabili ahal izanen diren bitarteko eta baliabideak, segurtasun pribatukoak barne.

d) Burutu behar diren ekintzak; prebentzioa helburu nagusi duten ekintzak eta gertaerei aurre egin edo erantzuteko jarduketak bereizi beharko dira.

e) Ekintza horien lehentasun ordena, aplikazioaren egutegia, jarraipen eta ebaluaziorako metodo egokiak eta indarraldia.

V. KAPITULUA**Administrazio publikoen arteko harremanak****21. artikulua.** Printzipioak.

Segurtasunaren arloko eskumenak dituzten administrazio publikoek ondoko printzipioei eutsi behar diete elkarren arteko harremanetan:

a) Erakundeen leialtasuna, eta gainerako administrazioei dagozkien eskumenak erabat errespetatzea.

b) Elkarri informazioa ematea.

c) Osagarritasuna, lankidetzeta, koordinazioa eta laguntza, jarduketak eta zerbitzuak egitean.

22. artikulua. Informazio estatistikoa.

1. Nafarroako Gobernuak, Nafarroako Estadistika Sistemaren bidez eta indarra duen araudiarekin bat, estatistikako jarduera sustatu behar du, Nafarroako segurtasun publikoaren egiazko egoera ezagutu eta aztertzeko informazio nahikoa eta koherentea izateko, beste administrazio publiko batzuetako informazio estatistikoeekin erkatu ahal izateko eta herritarren segurtasunarekin zerikusia duten Administrazio Publikoko eremuetan erabakiak hartzerakoan informazio hori erabili ahal izateko.

2. Segurtasun publikoaren arloko eskumena duen departamentuak urtero txostena eginen du Nafarroako Foru Komunitateko barne-segurtasunari buruz, Nafarroako Estadistika Planak arautzen dituen estadistika-jardueretan oinarritua. Txosten hori agintari eta organo interesatuei eman beharko zaie; bereziki, Nafarroako Foru Komunitateko Segurtasun Batzordeari, Nafarroako Udaltzaingorak Koordinatzeko Batzordeari, Segurtasunerako Departamentu arteko Batzordeari, tokiko segurtasun batzordeei eta herritarren segurtasunerako kontseiluei.

23. artikulua. Polizia-informazioak.

1. Polizia Datuen Tratamendurako Zentroa sortu da, polizia-zerbitzuen eginkizunak betetzeko behar diren informazioak bildu, gorde, landu, sailkatu eta kontserbatzeko.

2. Polizia Datuen Tratamendurako Zentroa barne gaietan eskumena duen departamentuaren menpekota izanen da eta haren egitura eta funtzionamendua bat etorriko dira datu pertsonalen babesari buruzko Lege Organikoan eta indarra duten gainerako legeetan xedatutakoarekin.

3. Segurtasun publikoaren arloko eskumenak dituen departamentuak polizia-informazioen sistema bateratua kudeatu eta mantendu beharko du. Udaltzaingo bakoitzak sistema horrekin bat egite-

ko eta hartan parte hartzeko baldintzak alde biko atxikipen hitzarmenean arautu beharko dituzte arestian aipatu departamentuak eta kasuan kasuko udalak, kontuan izanik datuak eskuratu, kontsultatu eta trukatzeko protokoloak eta departamentuko titularrak ezartzen duen aplikazio informatikoaren erabilera.

4. Segurtasun publikoaren arloko eskumenak dituen departamentuak poliziaren intereseko informazioaren trukea sustatu beharko du, bai Foruzaingoaren eta Estatuko kidegoen arteko trukea eta bai Europar Batasunean polizien lankidetzeta eta koordinazioa antolatzekeo eskumenak dituzten erakundeekikoa ere.

5. Nafarroako Foruzaingo eta udaltzaingoe-tako agintari eta kideak beharturik egonen dira beren eginkizunetarako beharrezkoa duten informazioa elkarri ematera, gaia dela-eta bidezkoa izan daitekeen isilpea eragotzi gabe eta lege aplikagarriak erabat errespetatuz, bereziki datu pertsonalen babesari buruzkoak.

6. Udaltzaingoa duten toki entitateek segurtasun publikoaren arloan eskumena duen departamentuari ondoko informazioak bidali beharko dizkiote urtero, lehen hiruhilekoan, departamentu horrek ezartzen dituen irizpide bateratuen arabera eginak:

- a) Aurreko urtean egindako zerbitzuen memoria.
- b) Delitu, hutsegite eta denetariko gorabeheren erregistroko datuak.
- c) Giza baliabide eta baliabide materialen dotazioak.

24. artikulua. Lankidetzeta hitzarmenak.

1. Nafarroako Gobernuak, segurtasun publikoaren arloko eskumenak dituen departamentuaren bitartez, lankidetzeta hitzarmenak sinatu ahal izanen ditu gainerako administrazio publikoekin, segurtasun arloan haiek dituzten eskumenen eremuetan, ondoko xede hauek betetzeko:

- a) Zerbitzuetan, bereziki polizia-zerbitzuetan, koordinazioa eta lankidetzeta antolatzekeo moduak eta prozedurak zehaztea, eta segurtasunaren esparru guztietan politika publikoak garatzeko jarduketak ere bai.
- b) Udaltzaingorik ez duten udalei Nafarroako Foruzaingoak laguntza ematea, udaltzain zerbitzuak eginez.
- c) Udaltzaingoa duten udalei Nafarroako Foruzaingoak laguntza ematea aldi baterako edo berriazko zerbitzuak eginez, garrantziagatik edo

espezializazioagatik beren baliabideekin ezin bete dituztenean.

d) Polizia-zerbitzu elkartuen eta partekatuen jarduna eta baterako ekintzak planifikatzea.

2. Lankidetzeta hitzarmenetan batzorde edo lan taldeen eraketa aurreikusi ahal izanen da aurreikusitako jarduketak burutzeko, bai eta zainketa eta kontrol organoen eraketa ere. Organo horiek, hitzarmena sinatzen duen udalak udaltzaingoa baldin badu, tokiko segurtasun batzordeei lotu behar zaizkie.

3. Nolanahi ere, segurtasun kidegoen arteko lankidetzeta hitzarmenak formalizatzeko tresnek, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari buruzko abenduaren 3ko 15/2004 Foru Legearen 88.4 artikuluan eskatzen diren baldintza orokorrez gain, ondokoak ezarri beharko dituzte:

- a) Xedeak eta helburuak.
- b) Zerbitzuen mugaketa eta kidegoen arteko banaketa.
- c) Zerbitzu partekatuetan jarduteko protokoloak.
- d) Poliziaren presentziaren estandar orokorrak.
- e) Polizia-informazioaren arloko lankidetzaren eremua eta protokoloak.
- f) Ekintzen koordinazioaren arloko lankidetzaren eremua eta protokoloak.
- g) Informazioa bildu eta lantzeko prozedurak.
- h) Emaidzak ebaluatzeko prozedurak.
- i) Jendeari argibideak emateko prozedurak.

4. Lankidetzeta hitzarmenek bermatu egin behar dute herritarrek eduki eta kalitate bereko segurtasun zerbitzuak jasoko dituztela, bizi diren tokian bizi direla ere, eta ezaugarri soziodemografiko berdintsuak dituzten udalerrietan segurtasun zerbitzuak parekoak izanen direla.

25. artikulua. Eginkizunen mugaketa Foruzaingoaren eta udaltzaingoen artean.

1. Hauek dira Nafarroako Foruzaingoaren eginkizunak:

- a) Herritarren segurtasunerako polizia- lanak, hau da, Foru Komunitateko agintariak babestea, Foru Komunitateko erakundeen egoitzak zaintzea, manifestazioetan eta ekitaldi jendetsuetan herritarren babestea, eta esku hartzea ordena berrezartzeko edota pertsonak, ondasunak eta herritarren segurtasuna babesteko.
- b) Polizia administratiboko lanak.

- c) Polizia judizialeko lanak.
- d) Hiriarteko trafikoa zaindu eta antolatzea.

2. Hauek dira udaltzaingoen eginkizunak:

a) Herritarren segurtasunerako polizia-lanak, hau da, toki korporazioetako agintariak babestea eta haien eraikin eta instalazioak zaintzea.

b) Hiriko trafikoa zaintzeko polizia-lanak, ates-tatuen instrukzioa barne.

c) Polizia administratiboko lanak, udal eskumenen eremuan.

d) Manifestazioetan eta ekitaldi jendetsuetan herritarrek babesten laguntzea, Tokiko Segurtasun Batzordeak zehazten duenaren arabera.

e) Polizia judizial gisa dagozkien eginkizunak, indarra duen araudiarekin bat.

f) Polizia komunitarioko lanak, herritarren bizikidetzaren eta tokiko zerbitzu publikoen eremuetan.

3. Hauek dira Foruzaingoak eta udaltzaingoen batera dituzten eginkizunak:

a) Hurbileko polizia-lanak eta herritarrei laguntza eta sorospena ematea.

b) Gatazka pribatuak adiskidetasunez konponitzeko esku hartzea, hala eskatzen bazaie.

c) Eremu publikoak zaintzea.

4. Aurreko idatz-zatian aipatutako eginkizun partekatuetan Nafarroako Foruzaingoak eta udaltzaingoen langileak elkarrekin aritzen direnean, kasuan kasuko lankidetzaren hitzarmenean zehaztutako agintariak zuzenduko dute ekintza, edo Tokiko Segurtasun Batzordeak, halakorik baldin bada; edo, besterik ezean, esku hartzen duten kidegoetako buruek batera zehaztuko dute nork hartu behar duen zuzendaritza.

VI. KAPITULUA

Herritarrekiko harremanak

26. artikulua. Herritarren eskubideak.

Herritarrek eskubidea izanen dute segurtasun publikoaren arloko eginkizunetan parte hartzeko, elkarrekin bidez eta Foru Lege honetan araututako herritarren segurtasunerako kontseiluetan ordezkaritza dituzten entitateen bidez.

27. artikulua. Kexak eta eskaerak.

1. Herritarrek segurtasun arloko agintariari nahi dituzten kexak eta eskaerak aurkeztu ahal izanen dizkiete segurtasun zerbitzuei buruz eta agenteen jardunari buruz.

2. Bai segurtasun publikoaren arloan eskumena duen departamentuak eta bai udalek, beren polizia-kidegoek herritarrei laguntzeko dituzten bulegoen bitartez, herritarren kexak eta eskaerak jasotzeko eta erantzunak emateko zerbitzua eskaini beharko dute.

28. artikulua. Segurtasun zerbitzu publikoen karta.

Nafarroako Herritarren Segurtasunerako Kontseiluak txostena egin eta gero, Nafarroako administrazio publikoek segurtasun zerbitzu publikoen karta bana ezarri beharko dute. Karta horietan jasoko dira herritarrek segurtasun arloan dituzten eskubide eta betebeharrak, indarra duen legeriari jarraituz.

Xedapen gehigarri bakarra. Segurtasun arloko zehapenak ezartzeko eskumena duten Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioako agintariak.

1. Herritarren Segurtasunaren Babesari buruzko otsailaren 21eko 1/1992 Lege Organikoaren xedapen gehigarrian ezarritakoaren ondorioetarako, honakoak dira agintari eskudunak:

a) Nafarroako Gobernua, 600.000 euro arteko isunak eta arau-hauste oso larri, larri edo arinengatiko gainerako zehapenak ezartzeko.

b) Segurtasun publikoaren arloko eskumenak dituen departamentuko kontseilaria, 300.000 euro arteko isunak eta arau-hauste oso larri, larri edo arinengatiko gainerako zehapenak ezartzeko.

c) Segurtasun publikoaren arloko eskumenak dituen zuzendari nagusia, 60.000 euro arteko isunak eta arau-hauste oso larri, larri edo arinengatiko gainerako zehapenak ezartzeko.

2. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren esparruan, eta Segurtasun Pribatuari buruzko ekainaren 30eko 23/1992 Legearen 4. xedapen gehigarrian ezarritakoaren ondorioetarako, honakoak dira agintari eskudunak:

a) Segurtasun publikoaren arloan eskumenak dituen departamentuko kontseilaria, hutsegite oso larri dagokienez.

b) Segurtasun publikoaren arloan eskumenak dituen zuzendari nagusia, hutsegite larri eta arinengatiko dagokienez.

Xedapen indargabetzaile bakarra. Indargabetzeen araubidea.

Indarrik gabe utzi dira Nafarroako Polizia Kidegoei buruzko Foru Legearen Testu Bateginaren (urriaren 14ko 213/2002 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsia) I. tituluko III. kapitulua (19 eta 20. artikulua) eta V. kapitulua (23, 24 eta 25.

artikuluak), bai eta Foru Lege honetan ezarritakoaren kontrakoak diren maila bereko edo apalagoko arau guztiak ere.

Azken xedapenetan lehenbizikoa. Erregelamenduzko arauak emateko gaikuntza.

Nafarroako Gobernuari baimena ematen zaio Foru Lege hau garatu eta betearazteko behar

diren erregelamenduzko arau guztiak eman ditzan.

Azken xedapenetan bigarrena. Indarra hartzea.

Foru Lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.



NAFARROAKO PARLAMENTUKO
ALDIZKARI OFIZIALA

HARPIDETZA
ORRIA

Izen-deiturak

Helbidea

Telefona *Hiria*

P. K. *Probintzia*

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri edo bertan sartu.

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA	IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Navas de Tolosa, 1 31002 IRUÑA
Urtebete 43,95 euro	
Aldizkari Ofizialaren prezioa, aleko 1,15 »	
Bilkura Egunkariaren prezioa, aleko 1,30 »	